

UZTARRIA

ZENBAKI HONEKIN BATERA
+ GUKA ALDIZKARIA

SUIZIDIOA

BIZITZEA EZINKIZUN



I N N O V A

AZPEITIA

HORTZKLINIKA

ZURITU HORTZAK
ETA PRESTATU
IRRIBARREA
UDARAKO

Jose Artetxe kalea 5
📞 943-02 59 55



MILAR LARRAMENDI



SUKALDE
GUNEAK

WHIRLPOOL
MIKROUHIN LABEA AMW 442



BIZITZA ERRAZTUKO DIZUN ETXETRESNA BERRIA

Julio Urkixo, 16 • AZKOITIA • 943-85 18 97 • www.milar.eus

ZURE LORATEGIRA EGOKITUKO DEN

atsedenleku freskagarria!

 **KIMUBAT**
— PAISAIA

Urrestilla bidea z/g, Azpetia
543 15 00 85 | iker@kimubat.eus



Informa zaituzte konpromisorik gabe.

ABANTAILAK | Muntaketa eta berraketa erroza - Erdi lurperatuta jartzeko aukera - Aldapadun eremuatarako aproposak
Ez dute obra bainetik behar - Lorategirako altzari bezala erabili daitezke - 5 urteko garantia - Espazio bakoitzera egokituta
www.kimubat.eus



UZTARRIA 249

2022-MAIATZA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
KRIS FERNANDEZ

Aurkibidea

- | | | | |
|----|--|----|---|
| 5 | Iritzia Ihintza Elustondo,
<i>Ahultasunetik ahultasunera.</i> | 26 | Erretratua Jabier Maiz udal
brigadaren koordinatzailea. |
| 6 | Hantxe bertan Irati Seguroola,
Belgikan bizi den herritarra. | 30 | Plazan bazan |
| 8 | Nire leihotik Jon Olaizola,
<i>Gailurreko oparia.</i> | 33 | Iritzia Imanol Amiano,
<i>Geure pausoen jabe.</i> |
| 10 | Iritziak Luis Gurrutxaga,
<i>Emakumeak otargintzan;</i>
Txetxu Urbietta, <i>Carpe diem.</i> | 34 | Atzera begira Urola Ibarreko
Biltzarrak. |
| 12 | Elkarrizketa Edurne Agirre eta
Itziar Unanue Azpeitiko Ekoetxeko
langileak. | 38 | Iritzia Ione Gurrutxaga, <i>Gero.</i> |
| 18 | Erreportajea Suizidioa. | 40 | Iritzi grafikoa Itziar Aranguren. |
| 25 | Lehiaketa | 42 | Klik! Baratzeko parkea. |
| | | 46 | Iritzia Miel A. Elustondo, <i>Eta orain
mina;</i> Aintzane Garmendia, <i>Gure
hitzordua.</i> |

UZTARRIA

TOKIKOM

Argitaratzailea

Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Soreasu 1. 20730
AZPEITIA
943-15 03 58
uztarrria@uztarrria.eus
www.uztarrria.eus

Zuzendaria:

Julene Frantzesena
Erredaktoreburua:
Ihintza Elustondo
Erredaktore taldea:
Mailo Oiarzabal
Julene Frantzesena
Maialen Etxaniz

Ihintza Elustondo

Diseinu arduraduna
iñaki Martinez Albizu
Publizitate arduraduna
Angel Sarasua
**Zenbaki honetako
kolaboratzaileak:**
Jon Olaizola

Luis Gurrutxaga
Txetxu Urbietta
Itziar Aranguren
Olatz Alkorta
Imanol Amiano
Ione Gurrutxaga
Miel A. Elustondo
Aintzane Garmendia
Nora Alberdi

Inprimategia

Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)
Lege Gordailua:
SS-860/2000
ISSN: 1576-7337
Tirada: 2.500 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia



uztarrria
AZPEITIKO KOMUNIKAZIO TALDEA

PUBLIZITATEA



ostadar optika
OPTOKIAK - OPTOMETRISTAK

Jose de Artetxe, 17
Tel. 943-810664
AZPEITIA

Ibai Ondo, 28
Tel. 943-850445
AZKOITIA

EGUZKI
belarrenda
dietetika
kosmetika naturala



Kale Nagusia 67 943-60 34 47 AZKOITIA
Urtiarie 9 bis 943-15 00 23 AZPEITIA

IRENE ALTUNA
DENTONIA

Loiola-Bide, 26 Tel. 943-81 51 87
www.dentonia.com

AZKOITIA

ERLOJU
KONPONKETAK

Arana, 5
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12

KIRURI



JATETXEA

Loiola hiribidea, 24
LOIOLA - AZPEITIA

Tifinoa: 943 81 50 08
Faxa: 943 15 03 62

Tuba
ehelkularitza

Analkularitza
libraria
komunikazioa
komunikazioa

Gestioi lanak
Finanzen administrazioa
Gestio imobiliarria

Tel: 943 157 329 Faxa: 943 157 329
Buzena: Kalea 49 - 48100 Azpeitia



Ekain
ALBAITARI KLINIKA

Euskal Herria Kalea, 34
20730 AZPEITIA
Tel.: 943-15 16 40
Larrialdiak: 688 69 29 51

**JARRI HEMEN
ZURE IRAGARKIA!**

Aiortza Autoak
Behar duzun konfiantzazko lantalari!

Marka guztietsako
ibilgailuen konponketak

943-81 19 15
AZPEITIA
aiortza@aiortzaautoak.com



CITROËN EuroZifer EUROTALLER MULTIMARKA ZERBITZUA

adi
AJATE ETA
DISEINU
ERKOLA
ELKARTEA

Marraskia eta eskulanak
(haurrak) 17:30 - 19:00

Pintura 16:00 - 17:30
(helduak) 19:00 - 20:30

Talla 18:30 - 20:00

Jose Artetxe kalea, 3
943 81 29 08
www.adiainua@gmail.com
Matrícula urte osoan zabalik

IKA
argi lanak s.l.

Instalakuntza Elektrikoak

Urteko: 618 96 49 95 / Jun: 649 12 02 71
ikaargilanaie@gmail.com www.ikasistemak.com
20730 AZPEITIA

"KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK"

**URBISTONDO
MARGOAK**

Salbe Auzunea, 35 behea 20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81

Ahaltasunetik ahultasunera



IHINTZA ELUSTONDO

Lorerik ederrenak ere erdi ezkutuan izaten ditu arantzak, munduaren aurrean eder agertzeko. Balerik handienak buztana erakusten dio lehorrekoari, lilura eragiteko. Eta indioilarrak lumak astindu. Ostrukari munduaren aurrean agertzeko armazoa falta nonbait, eta burua lur azpian sartzen du, desagertzeko, gorputz guztia kanpoan duela ohartu gabe.

Gu geu ere nola saiatzen garen barneko mamuak estaltzen, eraitsi ezin den harresi baten gisan agertzeko. Beti gogor, beti ondo, beti kementsu. Geure bertsiorik ahaltasuna soinean jantzita.

Aspaldi asmatu zuten gizakiaren joera hori deskribatzeko hitz egokia: *kanpolarrosa*. Kanpotik begiratuta, nola dirudigun lore, eder. Ezin jakin, ordea, barruan, ezkutuko sustrai horietan zer dagoen. Zerk ureztatu duen egunez egun lore hori, egun iritsi den neurrira iristeko. Zer pozek, zer minek.

Pozetik bezainbeste baitu bizitzak, sarritan, minetik.

Gutxien espero duzunean, lurrikara baten moduan etortzen dira gaitzak, heriotzak, beldurrak, mamuak. Izarraizko tontorretik zure buru gainera jausitako harri koskor baten gisan.

Mamu horiei ihes egiten saiatzen gara, ezkutaketan jolasean dabilzan haurrak zuhaitzaren atzean gordetzen diren moduan. Estali egiten ditugu minak, inork ez ikusteko. Baina hortxe agertzen dira, zuhaitzaren atzean haurraren zapatila agertzen den bezala.

Zenbat tabu, zenbat isiltasun. Zenbat tapakirekin estali ditugun ikusi nahi ez ditugun egitateak, desagerrarazi nahian. Baina estaltzen saiatzen garen mamuek ez dute inora alde egiten. Alderantziz, zenbat eta gehiago tapatu, are gehiago dira min. Urarekin estalitako herrixkak ere, marea jaistean, agertu egiten baitira.

Eta datuak hor daude. Gerran baino jende gehiago hiltzen da bere buruaz beste eginda. Auto istripuetan baino gehiago. Araba, Bizkai eta Gipuzkoan, bi egunetik behin hiltzen du bere burua norbaitek.

Horretaz hitz egin, ala ez hitz egin.

Irakaspen ederra eman zigun aurreko batean Aitziber Garmendiak: "Ez dakizue zenbat beldurtzen nauen arima biluzteak, irribarre egiteari utzi eta hauskortasuna erakustek. Baina merezi du, badakit. Gure beldurrez lotsarik gabe hitz egiteak, sekulako askatasun sentsazioa ematen du. Probatu beharko zenukete".

Sekula ez ditugu ezabatuko minak, oinazeak. Harri koskorrek Izarraizko tontorrekin behera erortzen jarraituko dutelako. Zure gainera, nirera. Baina horiei aurrez aurre begiratzeko gai baldin bagara, gutxienez, baretu egingo dira harri koskorrek eragindako zauriak.

Ez ahaztu ahal izatetik ahul izatera letra bateko koska baino ez dagoela.

(Lerro hauek sentipentsatzen ari nintzela izan nuen zure heriotzaren berri. Besarkada bat, Iñaki). ■■■

**URAREKIN ESTALITAKO
HERRIXKAK ERE,
MAREA JAISTEAN,
AGERTU EGITEN
BAITIRA**

Irati Segurola: "Pintxo poteoaren kontzeptua ekarriko nuke hona"

TESTUA: MAILLO OIARZABAL

ARGAZKIA: UTZITAKOIA

Beste asmo batzuekin joan zen lehen aldiz Belgikara Irati Segurola (Azpeitia, 1989), baina lehen bidaia hartan hasi zitzaion bizimodua aldatzen, eta han gelditzeko itzuli zen urte batzuk geroago. Hamahiru urteren ondoren, han jarraitzen du, Flandrian, senarrarekin, alaba txikiekin eta lanean. Azken urteetan ezin izan du Azpeitira oporretan nahi beste aldiz etorri, baina aurten badu etortzeko asmoa, udan zein Gabonetan.

Noiztik bizi zara Belgikan?

2009-2010 ikasturtean Erasmus bekarekin etorri nintzen Gantera. Ikasketa egonaldi hura bukatu baino hilabete lehenago, mutil bat ezagutu nuen, orain nire senarra dena, hain zuzen. 2013an Belgikara itzuli nintzen praktikaldi bat egitera, eta hemen gelditu nintzen, praktikak egin nituen enpresa berean lan eginez.

Non bizi zara?

Belgikara bizitzera etorri nintzenean, hasierako bost urteetan Ganten bizi izan ginen, baina duela lau urte herri txikiago batera aldatu genuen bizilekua. Deerlijk da gaur egun bizi garen herriaren izena. Nire lantokitik gertuago gaude hemen.

Nolakoa da zure horko bizimodua?

Asteazken zehar, etxetik lanera eta lanetik etxera ibiltzen naiz. Bi alaba txiki dauzkut, 3 urte eta erdikoa zaharrena eta 11 hilabetekoa gazteena. Asteburuak beti aprobetxatzen ditugu zerbait egiteko: Gantera edo Kortrijk-era joan, lagunekin elkartu, bizikletan ibiltzera joan, parkera, kostaldera...

Zer moduz moldatzen zara hizkuntzarekin edo hizkuntzekin? Flandrieraz ala frantsesez aritzen zara normalean?

Bizi naizen tokian flandriera hitz egiten da. 2013an etorri nintzenean, hizkuntza hori ikasteko

ikastaro trinko batean eman nuen izena; lau hilabeteko ikastaroa zen, eta egunero lau orduko eskolak izaten nituen. Hala ere, lanean gehien erabiltzen dugun hizkuntza ingelesa da, eta nik lan egiten dudan departamentuan, gainera, gaztelaniaz hitz egiten dugu denok. Eta Euskal Herriko bezero batzuk ere badauzkat, euskaraz hitz egiteko. Horixe da egiten dudan lanetik gehien gustatzen zaidana, 1.200 kilometrotara egon arren, etxean bezala sentitzen naizela.

Zerk harritu zaitu gehien, zerbaitek harritu bazaitu, bizi zaren herrialdean?

Dagoeneko hamahiru urte daramatzat hemen bizitzen, eta uste dut denera ohitu naizela. Egia esan, ez naiz akordatzten zerk harritu ninduen gehien etorri nintzenean.

Zer da horko bizimoduaz gehien gustatzen zaizuna? Eta gutxien?

Bizikletaz asko ibiltzen dira, eta hori asko gustatzen zait. Hemengo negua da, aldiz, gutxien gustatzen zaidana. Neguak luzeak eta ilunak dira hemen, eta argiaren falta sumatzen dut. Udan, hori bai, egunak oso luzeak dira. Eskerrak!

Zer ekarriko zenuke hortik Azpeitira? Eta zer eramango zenuke hemendik horra?

Neuk Azpeitira zer eramango nukeen ez dakit, baina familiakoek garagardoa eta bonboiak eskatzen dizkirate beti. Azpeitira autoan joaten naizenetan, berriz, handik janaria eta ardoa ekartzen ditut Belgikara. Pintxo poteoaren kontzeptua ere ekarriko nuke hona.

Azpeitira itzultzeko asmorik bai?

Oporretan bai, ahal dudanean. Koronabirusa dela eta, eta bi ume txikirekin, azken urteetan ezin izan naiz hainbeste joan. Baina datorren udan bai, Azpeitira joango gara, autoarekin, eta Gabonetarako ere hartuta ditut dagoeneko joan-etorriko hegazkin txartelak. Ez dut uste Azpeitian gelditzeko itzuliko naizenik, baina auskalo... Bizitzak buelta asko ematen ditu. ■■■



Gailurreko oparia



ARGAZKIA ETA TESTUA: JON OLAIZOLA

Gailurreko oparia, mendian zein bizitzan, ez da bere kasa etortzen, bakarkako bide luzearen ondorioz baizik.

Arerioa ez baita aurrean jartzen zaigun malda, ez eta erorikoak ere. Etsairik handiena, mendian zein bizitzan, norberak bere buruan eraman ohi du, laino ilunek burua eta bidea estaltzen dizkigutenean.

Gailurreko oparia da, ordea, hain gertu eta hain urrun ikusten duguna, bideko sufrimenduaren amaierako seinalea. Gorantza, lurrera begira, nekatuta, ikusi ezin duguna. Eta, aldiz, behin goian gaudenean, paisaia margolan koloretsu gisa aurkeztu ohi da.

Gailurreko oparia, geure barne gatazken eta mamuen amaiera baita. Pauso tinkoz eta iraunkortasunez iritsi ahal garena. ■■■







LUIS GURRUTXAGA

Emakumeak otargintzan

Otargintzari buruz luze eta zabal idatz daiteke. Gizakiaren historian, lehen langintza bihurtu zela diote. Duela hamarkada gutxira arte, pisu eta eragin dezentea izan du industriaren esparruan: nekazaritzan, okindegiatan, obretan, arrantzan, uzta bilketan... behar-beharrezkoak ziren otarreak. XX. gizaldiaren erdi aldean, Espainiako Estatuan oinarritzko beharretarako ekoizpentzat hartzen zuten. Horregatik, tren bagoietan garraiatzeko fakturazioa egiterakoan, lehentasuna omen zuten otarreek. Bitxia benetan. Gure ingurura etorrita, Ibaieder bailarara, antza denez, XIX. mendean olak desagertu zirenean, otargintzak hartu zuen haren lekukoa, jarduera nagusia bihurtuz: Urrestillan zumezko saskiak egiten zituzten;

Matxinbentan eta Nuarben gaztain zumitzezkoak. Azken auzo horretan, kaleko familia guztiek saskigintza zuten ogibide, eta zenbait baserritan nekazaritza eta otargintza uztartzen zituzten. Industrian oro har gertatu denez, makinek ordezkatu dute eskulana. Horrek eta plastikoaren aurkikuntzak ekarri dute gaztain zumitzez egindako otargintzaren gainbehera.

"Gizonak bakarrik langintza honetan?". Hori diot, pasadizo bat gogoratzean. Donostian otargintzari buruz emandako

**BAZIREN GIZONEN
PARE LANEAN ARITZEN
ZIREN EMAKUMEAK,
ZEREGIN BERBERAK
EGITEN ZITUZTENAK**

hitzaldi batean, Fermin Leizaola etnografo adituak adierazi zuen gizonak bakarrik aritzen zirela ofizio horretan; emakumearen presentziarik ez zela. Okerreko adierazpena. Halabeharrez, otargile ohi bat entzule han, eta hark zuzendu omen zion esandakoa. Etxeko lantegi bakoitzean, ezinbestekoa izaten zen emakumeen ekarpena. Egia da, otarrea egiteko prozesu luzean, emakumeak lan finetan edo indar gutxiago eskatzen zutenetan aritzen zirela: zumitzak apaintzeko, fintzen, edo azken saskiaren ilarak ehotzen (otarreak josten). Baina pure ezagutzan, baziren gizonen pare lanean aritzen ziren emakumeak, zeregin berberak egiten zituztenak: Joxepa Mendia Landa eta Agustina Landa Mendia, esaterako. Lehena nuarbetarra, 1926koa,

HAUXE BAI JENEROA!



eta bigarrena matxinbentarra, bi urte gazteagoa, Matxin pilotariaren sagako ama eta amona. Lehengusuak ziren Joxepa eta Agustina, aitaren eta amaren aldetik. "Gure amak – dio Inixiok, Joxeparen semeak–dohain askoren artean, indar 'esajeraue' zuen hatzaparretan, eta gizonen pareko huan. Baina lan finean ere... aparta. Hark apaintzen zituen eho-zumitzak, eta gero denok nahi izaten genian haiekin lan egitea. Baina ederki bereganatzen zizkian berak bakarrik erabiltzeko... kar, kar, kar". Joxepak bere senar Patxiri ofizioa irakatsi beharrik ez zuen izan, ezkondu aurretik lanbidea ondo menperatua zuelako gizonak. Baina ez zen gertatu gauza bera Iñaki Matxinen etxean. Agustinare senarra Bedaiokoa izaki, Matxinbentara ezkondu zenean,

emazteak irakatsi zion ofizioa, 14 urterekin hasia baitzen xextogintzan. "Gerora ere, attek amaren presentzia behar izaten zian zumitzak ateratzeko orduan", dio Iñakik, Agustinare semeak. "Egurak puntuan daude (labean berotuta) eta zatoz, Agustina", deitzen zioan aitak. "Ai, ze bizimodu latza zen hura! Gu zazpi anai-arreba izaki, ezagutu nian ama hiru lan batera egiten: lapikoa zaintzen, zumitzak apaintzen eta sehaska hankarekin kulunkatuz umea lokartzen. Auzoko jostuna ere bahuan, eta taberna genuenez, asteburutan berotu galantak hartu behar. Nola demontre konpontzen ziren garaiko amak...!".

Aitortza eta miresmena Joxepari eta Agustinari. Aitortza eta miresmena zor, emakume otargile guzti-guztiei. ■■■

HAN ETA HEMEN



TXETXU URBIETA

'Carpe diem'

Iragarri nizuen. Mundua norabide okerrean doa. Zuzenago esanda, mundua norabide okerrean daramagu. Eta okerrean da, okerrak okertzen tematuta gaudela. Jo ta ke, okertu arte. Bitxia da. *Gu*-a ni ezberdinok osatzen dugu, eta ni gehienok gure zereginak ezin hobeto egiten ditugula uste dugun bitartean, *gu* mundua suntsitzen ari gara. Beraz, matematika arauak ez dira guztiz zehatzak. Aita Juliok esan zigun zenbaki positibo baturak beste zenbaki positibo bat eman zuela. Ba, kasu honetan, ez. Gehi eta gehi berdin minus.

Tristura da nagusi. Mundu erdia depresioak jota, beste erdia psikologoek edo psikiatren beharrean. Bizipoza desagertzeaz. Antropologoek ikerketarako utzi beharrean, zerbait egin beharrean gaude. Ez da erraza, baina gure aurrekoek gure baliabideen laurdena izan gabe lortu bazuten, guk zergatik ez dugu ba lortuko. Belar motxa zer den ikasi beharko dugu: jakituria egoera berrietara moldatzeko gaitasuna omen da. Jakituriak bizipoza berreskuratzen lagundu behar digu. Lau egun bizi behar, eta ez gara ba triste, petral eta haserre biziko! *Carpe diem*. Gainera, mundua zuzentzera joan litekeenaren aurreneko zantzuak agertu dira: Lagun Onakek berriro Anaitasunari irabazi dio. Haitzaren behetik dagoena haitzaren goitik dagoenaren gainetik egoteko sortu zuen sortzaile handiak. Logika hutsa.

P. D.: Ironia eta umorea, bota eta entzun, bizipozaren oinarri. Xakelek gainera badakite, beti poz. ■■■



"Lehen ez genuen uste ingurumenean kalteak sortzen ari ginenik"

EDURNE AGIRRE ETA ITZIAR UNANUE AZPEITIKO EKOETXEKO LANGILEAK

Jasangarritasunaren heziketan eragiteko xedez egiten dute lan Azpeitiko Ekoetxean. Hondakinak, kontsumoa, energia, garraioa, klima aldaketa, biodibertsitatea eta beste hainbat gai lantzen dituzte taldeekin Egibar baserrian. Itziar Unanuek eta Edurne Agirrek Ekoetxean egiten duten lanaz hitz egin dute, patxadaz. Testua: **Julene Frantzesena**. Argazkiak: **Julene Frantzesena eta Ekoetxea**.

Umeentzako Museoa aurrena, Ingurugiro Etxea gero, eta Ekoetxea orain. Loiola auzoan kokatuta dagoen Egibar baserriak badu historia; hain zuzen ere, 35 urteko ibilia egin du guneak, eta urte horietan guztietan ehunka herritar joan dira hara. 2015era arte etxearen atariko parkean izan ziren dinosauroengatik ere bazen ezaguna eremua, eta gaur egun han kokatuta dagoen Xaguxatar parkeak ere badu sona. Aldaketak aldaketa, 1987an ingurumen hezkuntzako zentro gisa zabaldu zuten leku berean aritzen dira gaur egun lanean Itziar Unanue (Azpeitia, 1965) eta Edurne Agirre (Azpeitia, 1964), baita Ana Arruti ere –ezin izan zuen elkarrizketan egon–, eta haiekin elkartu da Uztarrria. Sorreratik egiten du lan han Unanuek, eta bost urte geroagotik Agirrek. **Umeen Museoa izan zen hastapenetan. Zer-nolakoa zen gunea orduan?**

ITZIAR UNANUE: Umeentzako Museoa natur zientzietan oinarrituta zegoen, baina ekologia ere lantzen genuen bertan. Umeen opor garaian-eta ludoteka bezala funtzionatzen zuen museoak, eta

herritar asko eta asko etortzen ziren bisitan. Gainera, jostailu pila bat genituen museoan. Hastapenetan irakasleekin egiten genuen lan, ez umeeekin; hau da, irakasleekin lantzen genituen gaiak, gero haiek haurrekin horiez jardun zezaten. Gero, museoa Ingurugiro Etxe izatera igaro zenean, asko aldatu zen lan egiteko modua; haurrekin hasi ginen ingurumena lantzen. Orduantxe hasi ziren ingurumen gaiak pil-pilean jartzen, eta gu ere ikasten hasi ginen.

EDURNE AGIRRE: Garapen nabarmena izan du etxeak urte hauetan guztietan.

Zer oroitzen dituzue hasierako urte haiez?

I.U.: Oroitzapen izugarri onak dauzkat, jende pila bat etortzen baitzen gurera. Asteburuetan guraso pila bat etortzen ziren haurrekin egotera, jolastera, eta harreman handia egin genuen herritar askorekin.

E.A.: Kontuan hartu behar da Azpeitikoa izan zela Euskal Herriko lehen ingurumen ekipamendua; dena originala zen, dena berria. Nik ere oso oroitzen onak ditut.

I.U.: Umeeekin egotea zen gure lana orduan. Gaur egun denetarik egiten dugu.

Zertan aldatu da etxea urteotan?





E.A.: Alde batetik, gure lana aldatu egin da, taldeak zuzenean hartzen ditugulako egun. Bestalde, materiala ere guk prestatzen dugu orain.
I.U.: 35 urteotan aldaketa asko izan dira. Zabaldu zutenean, Umeentzako Museoa zen, baina 1998an Ingurugiro Etxea izena hartu zuen Egibar baserriak. 2003an, garapen jasangarria lantzen hasi ginen, eta eskolako Agenda 21 programa txertatu zuten eskaintzan. Gai gehienak mantenduta, berrantolaketa gauzatu genuen. 2017an, berriz, Ekoetxea Sarean sartu zen gunea. Ingurumenaren gaiak eskatzen du berritzen joatea, datuak-eta eguneratzea.

Herriko ikastetxeekin elkarlanean hainbat proiektu gauzatu dituzte Azpeitiko Ekoetxeak. Zeintzuk?

E.A.: Herriko hainbat proiektutan sartuta gaude, hala nola Agenda 2030ean. Gai bat hartzen da urtero edo bi urtez behin, eta ikasleek gai horren bueltako diagnostikoa egiten dute. Aurten, adibidez, berdeguneak ari gara lantzen. Adin guztietara egokitutako materiala prestatzen dugu, eta haren gainean ekarpenak eta lanketak egiten dituzte ikasleek. Bukatzean, jasotako iritziak-eta Azpeitiko Udalarari aurkezten dizkiete ikastetxeetako ordezkariak, eta urteetan, eskaera horiek gauzatu joaten da erakundea. Adibidez, bizikletentzako aparkalekuak eskatu zituzten urte batean, sailkatutako zaborrontziak jartzea parkeetan, bidegorri sarea osatzea...

I.U.: Gauza asko egin dira urteotan, eta ikasleek ikusten dute beraiek landutako eta eskatutako hori egia bihurtzen dela batzuetan.

E.A.: Bestalde, Euronet 50/50 programan ere sartuta gaude, eta proiektu horien bidez harreman handia egin dugu herriko ikastetxeekin, bereziki Eskolako Agenda 2030ekin. Izan ere, maila desberdinetako umeak urtero-urtero etortzen dira Ekoetxera, eta harremana egin ahal izan dugu irakasleekin nahiz umeekin.

I.U.: Ikastetxeek urteko plangintzetan edo curriculumetan dituzte ingurumenari lotutako hainbat kontu, Loiolako zuhaitzak ezagutzea-eta adibidez. Urtero ekintza jakin batzuk egiten dituzte, hutsik egin gabe.

E.A.: Hezkuntzari lotutako lehen ingurumen ekipamendua izan zen Azpeitiko, baina orduz geroztik, pila bat zabaldu dituzte han eta hemen. Ikastetxeentzako eskaintza izugarria da, eta aldatu egin da panorama. Dena den, ikastetxeetatik jende asko etortzen da gurera.

Ekoetxea Sareko kide da Azpeitiko egoitza. Zer da sare hori?

Azken urteetan Ekoetxean hartutako irudiak. EKOETXEA

Edurne Agirre eta Itziar Unanue. JULENE FRANTZESENA

"HEZKUNTZAKO LEHEN INGURUMEN EKIPAMENDUA IZAN ZEN AZPEITIKOA; PILA BAT DAUDE EGUN"

"GAUR EGUN NABARMENA DA ETXEETAN NAHIZ IKASTETXEETAN INGURUMENAZ HITZ EGITEN DELA"

"HERRIKO IKASTETXEekin DUGUN HARREMANA AIPATZEKO DA; GURETZAT OSO GARRANTZITSUA DA"

E.A.: Lau Ekoetxek osatzen dute sarea: Bizkaiko bik, Urdaibaikoak eta Meatzaldekoak, eta Gipuzkoako beste bik, Txingudikoak eta Azpeitikoak. Horietan denetan gai desberdinak lantzen dira; Azpeitikoan ez beste hiruretan, gai oso zehatzak. Ingurumena interpretatzea ez ezik, herritarrak ingurumenarekin eta biodibertsitatearekin sentsibilizatzea ere bada gune horien xedea; hau da, ingurumena zaindu eta kontserbatu egin behar dela da Ekoetxea Sareak zabaldu nahi duen mezua.

Horretarako hainbat saio egiten dituzue ikasleekin, asteburuetan ere familia ekintzak antolatzen dituzue...

E.A.: Hainbat ekintza egiten ditugu; tailerrak, Igarako errotako ate irekiak, bisita gidatuak... Saiatzen gara ingurunearekin lotura duten gaiak hartzen eta adin desberdinetako haurrentzako nahiz gaztetxoentzako ekintzak prestatzen. Askotan etortzen diren herritarrak ere badira tartean, eta harremana egin dugu horiekin. Pentsa, hilean bi ekintza egiten hasi ginen, eta datozen hilabeteetan gehiago izango dira.

I.U.: Ekoetxea zabalik egoten da zapatuetan eta igandeetan, eta ekintzekin lortzen dugu jendea erakartzea. Izan ere, asteburu batzuetan bisitari ugari izaten dira, baina beste asteburu batzuetan jende gutxiago etortzen da.

E.A.: Eguraldiak, urte sasoiak, herrian dauden bestelako ekintzek... baldintzatzen dute bisitarien kopurua, normala denez. Dena den, pandemia tarteko, inguruko herrietako bisitariak izan ditugu gurean, eta hori oso pozgarria da. Jendea ateratzeko eta planak egiteko gogoz dago, eta Ekoetxearen kokapena luxu bat da; bidegorria bertan dugu, paraje ederrak ere bai, Xaguxatar parkea dugu atarian, Xaguxatar ibilbidea inguruan...

I.U.: Pandemiarekin jaitsi egin zen bisitari kopurua, baina hasi gara ohiko martxa berreskuratzen. 2020-21 ikasturtean, adibidez, 4.480 bat lagun etorri ziren Ekoetxera, aurreko sasoiaren baino askoz gehiago: 2.986 pertsona etorri ziren orduan. Aldiz, 2018-2019ko zifrara ez gara iritsi oraindik: 6.159 lagun izan ziren Ekoetxean.

Azpeitiko Ekoetxera joaten denak zerekin egingo du topo?

I.U.: Gai asko lantzen ditugu Ekoetxean. Batetik, hondakinak, kontsumoa, garapen iraunkorra, demografia, hiri ekosistema, energia, garraioa, zarata, klima aldaketa, atmosfera, ura eta biodibertsitatea lantzeko hainbat osagai ditugu eraikinaren barruan.

Dena den, horiez gain, Igarako errota eta Xaguxatar parkea ere programan sartuta ditugu. Xaguxatar bidea ere aipatzekoa da; izan ere, oso ibilbide polita da, 6,5 kilometrokoa. Urtean behin, familiei zuzendutako bisita gidatua egiten dugu, Ingurumenaren Nazioarteko Egunaren bueltan.

E.A.: Gai asko lantzen dira Ekoetxean, bai, eta horretarako askotariko baliabideak erabiltzen ditugu: maketak, jolasak, panelak... Horrek jokia ematen du gaiak lantzerakoan. Gainera, doako zerbitzua eskaintzen dugu Ekoetxean.

Azken urteetan gero eta presentzia handiagoa hartu dute ingurumen gaiak gizartean.

E.A.: Hala da, bai. Ezjakintasun handia zegoen gizartean.

I.U.: Ikastetxeetan ez zen lantzen gaia. Duela hamarkada batzuk ez genuen uste ingurumenean kalteak sortzen ari ginenik. Ingurumena betirako dela eta horrelaxe dela uste genuen, baina begira.

E.A.: Orain guztiz beste muturrean gaude. Gaur egun nabarmena da etxeetan nahiz ikastetxeetan gaiaren bueltan hitz egiten dela. Hurrek txikitatik barneratu dituzte ingurumenaren bueltako kezka; adibidez, umeek, beren erara, baina badute halako kezka bat birziklapenarekiko edo elektrizitatearen bueltan gertatzen ari denarekiko. Aldea nabarmena da: guk dena gerora ikasi behar izan dugu, eta umeak txikitatik ari dira ikasten.

Ingurumenarekiko sentsibilizazioan eragitea duzue xede. Nola?

E.A.: Horretan saiatzen gara. Bisitan datorrenak gaiak dakien horretatik abiatuta lantzen ditugu programak, eta informazioa emateaz gain, bukaeran, norbanako bakoitzak gai horren bueltan zer egin dezakeen hausnartzea gustatzen zaigu. Izan ere, bestela, jasotako informazio guztia urrun gelditzen zaie bisitariari. Gai zailak dira, baina denok jar dezakegu gure aldetik zerbait. Gauza txikiak izanagatik, denok gure esku dagoena egiten baldin badugu... Haurrak inplikazioa behar dela dioen mezuarekin gelditzen baldin badira, ez da gutxi.

I.U.: Egiten ditugun asteburuetako ekintza asko ere gauzei bigarren aukera bat emateko xedez egiten ditugu, hala nola arropak, plastikozko botilak, brik ontziak... erabiltzen ditugu. Saiatzen gara birziklapena-eta lantzen.

Ekologia, ingurumena eta jasangarritasuna lantzen dituzue, batez ere. Gaiak berritzen al dituzue?

E.A.: Erakusketa finkoa da, baina Agenda 2030en barruan aztertzen den gaiaren arabera, baliabide

berriak sortzen ditugu: tresna didaktikoak, ginkanak...

I.U.: Bestalde, ohitura handia dugu herrian egin diren egitasmoen berri emateko ere: kaleko argiteria LED sistemara aldatu dutela, eraikin publikoetan eguzki plakak jarri dituztela... Horiek ere azaltzen dizkiegu bisitan etortzen diren haurrei, eta aldi berean, beren herrietako egitasmoez galdetzen diegu. Errealitatera jotzen dugu, erabat.

Herriko ikastetxeekin egiten duzuen lanetik, zer azpimarratuko zenukete?

E.A.: Urtez urte, hainbat gai lantzeko aukera eman digute martxan izan diren eta diren programek. 2003tik ari gara herriko ikastetxeekin Agenda 21 eta Agenda 2030 lantzen, eta atzera begiratuta, herrian aurrerapauso handiak egin direla ikus daiteke. Egindako bidea, beraz, positiboa da. Gauza batzuek txikikeriak dirudite, baina horiek lortzeko lan asko egin da urteetan. Duela urte batzuk, adibidez, Salbe auzunearen eta Loiolaren arteko bidea oinezkoetako proiekturako ekarpenak eskatu zitzaizkien ikasleei, eta proiektu izugarri interesgarriak egin zituzten. Proposatu zituzten lan haietako batzuk gauzatu egin zituen udalak.

I.U.: Atzera begiratuta, gauza asko egin ditugu elkarlanean. Gainera, Azpeitiko ikastetxeekin sortu den hartu-eman ere aipatzekoa da.

E.A.: Eta herrian hainbat eta hainbat proiektu gauzatu dira: parkeak berritu dituzte, Goenako eremua txukundu dute, ibai garbiketarako egiten dira, zuhaitz egunak ere bai –urteetan landatu dira zuhaitzak han eta hemen–, Elikagunea martxan da... Gauza asko egin dira herrian azken urteetan.

Umeek ba al dute ingurumenarekiko kezkarik?

I.U.: Kezka badituzte, horietako asko etxean edo telebistan entzundakotik sortuak. Bizi diren lekuaren arabera ere, aldatu egiten dira kezka horiek.

Zergatik da garrantzitsua umeekin ingurumen gaiak lantzea?

E.A.: Hondakinak eta garapen jasangarria lantzen ditugunean, zera esaten dugu beti: guk planeta modu batean jaso dugu, eta gure ardura da ondorengoei ahalik eta ondoen lagatzea. Ahal dugun mailan eragingo dugu, baina badugu ardura bat. Gure esku dagoena, behintzat, egiten saiatu behar dugu. Gutxi iruditu arren, denok zerbait egingo bagenu...



I.U.: Berrikuntzarekin ere badu lotura. Ez dugu nahi duela 50 urteko bizimodura bueltatzea, noski, baina era berean, dena kutsatzen, baliabide naturalak agortzen... ari gara. Nola lortuko dugu oreka? Gure aitona-amonek egiten zituzten guk egiten ditugun gauza berberak, baina ez zuten guk adina energia erabiltzen, eta haiek ere bizi ziren; ziurrenik, gu baino askoz ere gusturago, gainera.

E.A.: Beste jolas batzuk ziren garai hartan, beste ohitura batzuk. Orain, denok konektatuta gaude, lokalizatuta, denok pantailari begira. Ez dakigu burua pantailatik altxatuta egoten. Energia behar dugu, inor ez dago prest energia alde batera uzteko, baina nolako energia behar dugu? Bizikletaz joaten gara lanera lantokia herrian dagoelako, baina udan hegazkina hartu eta oporretara joango gara. Beharrak asko aldatu dira, baina kontziente izan behar dugu egiten dugunarekin.

Herriko eragile bat gehiago zaretela esana duzue.

I.U.: Denentzako ditugu atek zabalik, eta saiatzten gara informazio eske etortzen denari ere behar duen hori ematen.

E.A.: Herriko eragileekin elkarlanean aritzeko prestutasun osoa dugu. Garagunearekin egin izan ditugu ekintzak, baita ludotekekin ere; Plazatarrak egitasmoaren barruko saio batzuk hemen egin zituzten, adibidez. Gure eskaintza, berez, ikastetxeei zuzendutakoa da, baina talde ugariarekin egin izan dugu lana.

Urte hauetan guztietan zer eman dizute Egibar baserrian izan diren ingurumen proiektuek?

I.U.: Atzera begiratuta, beti gauza bera esaten dut: zer jende pila pasatu den etxe horretatik. Zer tratu izan dugun hainbat eta hainbat herritarrekin. Pentsatu nahi dut egin ditugun saiakerek zerbaitetarako balioko zutela. Buruhaustek izango genituen, baina poztasunekin gelditzen naiz.

E.A.: Talde asko ezagutzeko aukera eman digu, eta hori oso ederra da. Herriko ikastetxeekin dugun harreman ona azpimarratu nahiko nuke, guretzat oso garrantzitsua delako. Urteetako lanaren fruitua da; egiten dugun lana –materiala prestatzen diegu– asko baloratzen dutela ikusten dugu, eta hori oso pozgarria da guretzat. ■■■



Argitasunik ez beltzaldian

Araba, Bizkai eta Gipuzkoan bi egunez behin bere burua hiltzen du norbaitek. Suidizioa errealitate bat da, nahiz eta isiltasuna izan den horren aurrean gizartean hedatu den oihartzuna. Isiltasun hori apurtu eta gaia normalizatzeke, suizidioari lotutako jardunaldiak antolatu ditu udalak.

Testua: **Ihintza Elustondo**. Argazkiak: **Kris Fernandez**.



Beltzaldian argitasunik ez ikustea. Ohetik jaikitze gogorik ez izatea. Eguna argitu orduko gau beltzaren zain egotea. Hurrengo egunaren faltarik ez sumatzea. Ezeren pozik ez izatea, ezertarako pozik ez izatea, ezerk ez poztea. Ilusioa galtzea. Bizi behar baina nahi ez izatea. Iñaki Seguroiak *Urola Kostako Hitza* egunkarirako idatzitako artikulua batean azaldu zuen bezala, "bizitzea ezinkizun" bilakatzea. Bidean pitzadura bat agertzea. Krak egitea. Norbere burua hiltzea.

Errealitate hori irudikatze hutsak korapilo bilakatu ohi ditu baten eta bestearen ezarriak, listua ez gora eta ez behera katigatu eta ahotsak mutu uzteraino. Askotan, beldurra eragiten duena estaltzea izaten da gizakiaren joera, eta bide beretik, suizidio kasuen aurrean, isiltasuna izan da gizartearen erantzuna; lau haizetara zabaldu den oihartzuna. Dena den, adituek argi diote suizidioaz hitz egin egin behar dela, horrela lortuko delako zauriak arintzea, informazioa zabaltzea, gaia normalizatzea. Bide horretatik, suizidioari lotutako jardunaldiak antolatu ditu Azpeitiko Udalak: hainbat hitzaldi izango dira maiatzean eta ekainean herrian.

Xabier Lertxundi Gipuzkoako Osasun Mentaleko Sareko Kudeaketa Klinikoko Unitateko Buruak parte hartuko du saio horietako batean, eta suizidioaren errealitatearen atzean zer dagoen ezagutzeko zenbait gako azaldu ditu. Gardenak, gordinak, dira zenbakiak. 2020koak dira Eustatek kaleratutako azken datuak, eta horien arabera, Araba, Bizkai eta Gipuzkoan, guztira, 184 pertsonak egin zuten beren buruaz beste urte hartan; hau da, bi egunez behin pertsona batek, gutxi gorabehera. Dena den, datu horiek ez dute errealitate osoa jasotzen, adituek behin baino gehiagotan aipatu izan dutenez. Hala baieztatu du Lertxundik ere: "Oso konplikatu da kasu guztiak erregistratzea. Suizidatzeko aukeratzen den bideak zaildu egin dezake zenbaketa. Kasu batzuk erregistra daitezke trafiko istripu gisa, bihotz-biriken gelditze moduan... Horregatik, esku artean ditugun datuak esanguratsuak diren arren, gehiago dira kasu errealak". Gaur-gaurkoz, kausa ez naturalen artean, suizidioa da heriotza

KAUSA EZ NATURALEN ARTEAN, SUIZIDIOA DA HERIOTZA GEHIEN ERAGITEN DITUEN FAKTOREA



gehien eragiten dituen faktorea. Egun, trafikoa istripuetan baino jende gehiago hiltzen da bere buruaz beste eginda.

Bi egunez behin, suizidio bat

2020ko datu horiek xehatzen hasiz gero, nabarmena da emakumeen eta gizonen arteko aldea; beren burua hil zuten 184 pertsona horietatik 139 gizonak ziren, eta 45 emakumeak. Azken urteotako datuei erreparatuta, joera bera errepikatzen da; beren burua hil dutenen artean, urtero-urtero dira gehienak gizonak, alde nabarmenarekin. Lertxundik azaldu duenez, dena den, emakume gehiago saiatzen dira beren bizitzari amaiera jartzen, nahiz eta gutxiagok lortzen duten helburua. "Erabiltzen den metodoak zerikusia dauka horretan. Emakumeek joera handiagoa dute medikazioa hartzeko. Gizonek, berriz, gehiago erabiltzen dituzte su armak eta antzekoak. Aukeratutako bidea inpulsiiboagoa izaten da gizonetan, kasu askotan".

Adinari dagokionez, 40 eta 49 urte artean zituzten 2020an beren burua hil zuten gehienek; 42 lagunek, hain zuzen ere. Eta 50 eta 59 urte artean zituzten beste 36 lagunek; hori zen bigarren adin tarte errepikatuena. Lertxundiren arabera, adin ertainekoak, helduak, izan ohi dira beren burua hil ohi duten pertsonen gehiengoa. "Isolamendu soziala handiagoa da adin horretan, bakardadea ere bai, gaixotasun kronikoak ager daitezke... Erabile horiek askotan baldintzatzen dute jendea bere burua hiltzera".

Askok aipatu izan da, izurriak eraginda, 2019tik 2020ra suizidio kasuek gora egin zutela, eta

Eustaten datuek hori baieztatzen badute ere, urteetan atzera eginez gero, urtez urte antzekoak dira kopuruak. Lertxundik azaldu du pandemiaren ondorioz ez zela asko igo suizidio kopurua, baina bai saiakerak, batez ere, nerabeen artean. "Suizidio saiakerak asko ugartu dira nerabeen artean; nabarmena izan da. Zorionez, saiakera guztiak ez dira errealitate bilakatzen, eta horregatik ez da nabaritu igoera esanguratsurik suizidio datuetan".

Azken urteetako datuak esku artean, gauza bat argi dago: lehen baziren suizidio kasuak, eta gaur egun ere badira. Etorbizunean errealitate hori erabat saihestea ezinezkoa izango den arren, prebentzio lana ezinbestekoa dela uste dute profesionalak nahiz erakundeek, eta horretarako egitasmoak martxan jartzen ari dira azken urteetan. "Suizidio tasak murriztea da helburua, eta horretarako lanean ari gara buru osasuneko profesionalok. Sekula ezingo ditugu kasu guztiak saihestu, baina uste dut zerbait egin daitekeela; hori pentsatu nahi dut, behintzat".

Baldintzatzaile bakar bat ez

Herritar guztiek dakite zer den suizidioa, baina errealitate hori profesionalak nola definitzen duten azaldu du Lertxundik. Haren arabera, suizidioa, bere horretan, "ez da gaixotasun bat, jokabide bat baizik". Hark dioenez, "teoria asko" sortu dira pertsona bat bere burua hiltzera zerk bultzatzen duen azaldu nahian, baina oro har, ekintza hori "sufirimendu psikologikoarekin" lotu ohi da, "esperantza faltarekin". Dena den, adituek diote suizidioa ez dela lotu behar arrazoi batekin. Honako azalpen hau eman zion psikologo batek

gertuko bat galdu zuen herritar bati: "Tantaz tanta betetzen joaten dira, ihesbiderik ez duen presio eltze baten moduan, gehiago ezin duten arte, eta azkenean, lehertu egiten da eltzea".

Hala eta guztiz ere, buruko gaitzak izan ohi dira suizidio kasuen eragile nagusiak, Lertxundik baieztatu duenez: depresioa, nagusiki. Baina buruko gaitzak ez dira eragile bakarrak: "Substantzien mendekotasunak, isolamendu sozialak, zenbait euskarririk huts egin izanak, zaurgarritasunak eta beste hainbat faktorek ere izan dezakete eragina". Dena den, bada sarri errepikatzen den faktore bat: "Faktore nagusia izan ohi da aurrez ere bere buruaz beste egiten saiatu izana; hori da kasu batetik bestera gehien errepikatzen dena. Aurretik saiatu denak aukera gehiago ditu berriro ere saiatzeko".

Depresioa eta suizidioa izena jarri dio Lertxundik Azpeitian emango duen hitzaldiari, eta izenburu hori zergatik aukeratu duen azaldu du: "Depresioa gaixotasuna da, eta suizidioa gaixotasun horri oso lotuta dagoen jokabidea. Baina, derrigorrez, ez da depresioan egon behar suizidatzeko. Beti errepikatu ohi den faktorea da sufrimendu mentala, esperantza falta. Horrek ez du zertan beti depresioari lotuta egon behar, baina askotan batera joaten dira".

Kasu bakoitzaren atzean errealitate ezberdinak egon ohi dira: batzuek aurretik datorren depresio baten ostean hil ohi dute beren burua, baina badira erabaki hori aurrez inolako zantzurik agertu gabe hartzen dutenak ere. "Suizidioa, azkenean, jokabide bat da, eta jokabide horren atzean azalpen ezberdinak daude". Eraitza, ordea, bera izan ohi da beti: "Sufrimenduari irtenbidea emateko jokabidea da suizidioa".

Tristura ez da depresioa

Lertxundiri garrantzitsua iruditzen zaio tristuraren eta depresioaren arteko diferentzia zein den azaltzea, askotan bi kontzeptu horiek "nahastu" egiten direlako. "Depresioa patologia bat da, gaixotasun bat, eta sintoma asko eragiten ditu; depresioa izatea ez da triste egotea bakarrik. Tristura sakona izan ohi da, denbora batez irauten duena, eta eragin handia izaten du beste gauza askotan: ez dago energiarik, kognitiboki ere gauzak aldatu egiten dira, loa aldatu egiten da, gosea ere bai... Gauza asko gertatzen dira. Triste zaudenean, estrategia asko egon ohi dira horri buelta emateko, baina depresioa duzunean, laguntza profesionala behar duzu. Uste dut hori

argi izan behar dela". Depresioak bizitzako esparru askotan duela eragina nabarmendu du Lertxundik, eta gaitz horren ondorioz larriena suizidioa dela; gaitz hori duen pertsonak bere burua hiltzen amaitzea, alegia. "Horregatik daude bi kontzeptuak hain lotuta".

Halako sintomak dituen pertsona bat ondoan izatean, ordea, zer egin? Nola lagundu? Hori izaten da askotan gertukoaren barne borroka. Lertxundik argi utzi du depresioari aurre egiteko tresnak badaudela, eta horregatik, Azpeitiko jardunaldietan parte hartzera animatu nahi ditu herritarrak. "Uste dut ezinbestekoa dela informazioa. Buruko gaitzei buruz hitz egiten dugunean, estigmak agertzen dira, eta estigmen oinarrian beti dago ezagutza falta. Buruko gaitzei, horiek duten eraginari eta horien aurrean egin daitekeenari buruzko zenbat eta informazio gehiago izan, are hobeto izango da". Haren arabera, izurriak "gauza on gutxi" ekarri ditu, baina horietako bat izan da buru osasunaren gaia mahai gainean jartzea. "Osasun plan gehienetan azken lerroan egon ohi da buru osasunaren gaia, eta agerian gelditu da aldaketan beharra. Helburua hau da: informazioa zabaltzea, aurrerapausoak emateko". Arazoari ihes eginez gero, ez baita argituko beltzaldia. ■■■

SUIZIDIOAREN INGURUKO JARDUNALDIAK

Saio guztiak Basazabal jauregian izango dira, 18:00etan.

Maiatzak 19, osteguna.

Hitzaldia: *Depresioa eta suizidioa*.

Hizlariak: Xabier Lertxundi Gipuzkoako Osasun Mentaleko Sareko Kudeaketa Klinikoko Unitateko burua eta Iñigo Antsorregi Dierez depresioa izan duen gaztea.

Maiatzak 26, osteguna.

Hitzaldia: *Suizidioa prebenitu, bizitza sustatzeko*.

Hizlariak: Biziraun elkarteko kideak.

Ekainak 2, osteguna.

Mahai ingurua.

Hizlariak: Aitziber Garmendia eta Garbiñe Larrea. Dinamizatzailea: Ihintza Elustondo.



Suizidioarekin harremana izan duten bi pertsonak beren esperientzia azaldu dute. Bere burua hiltzen saiatu zen pertsona baten testigantza da aurrenekoa, eta senide bat galdu zuen herritar batena bigarrena.

“Askotan kritikatu egiten da norbaitek bere burua hil izana, baina ulertu egin behar da pertsona hori nola dagoen”

“40 urte inguruko gizon azpeitiarra naiz. Duela hamar urte, neure buruaz beste egiten saiatu nintzen. Ordutik, asko aldatu da nire egoera. Gaur egun, zoriontsu bizi naiz, nire familiarekin eta umeekin.

Azpeitian egingo dituzten jardunaldiak bezalakoak sustatzea garrantzitsua iruditzen zait, baina uste dut benetan laguntza behar duen jendea ez dela horrelako saioetara joaten, ez delako ausartzen. Uste dut lagungarria dela suizidioaz hitz egitea, baina kontuz hitz egin behar dela. Niri iraganeko pasarte hori azaltzea tokatu izan zaidanean, gertatu izan zait ingurukoek erotzat hartzea. Jendeari ez zaio gustatzen horretaz hitz egitea, estigma hori badago gizartean. Horregatik, ez dut kontatzen garai hartan bizi izan nuena. Nire gurasoek-eta badute horren berri, baina nire bikotekideari nahiz seme-alabei ez diet ezer kontatu. Hitz egin behar da suizidioaz, baina halako egoera batetik pasatu denari uste dut ez zaiola gustatzen bere esperientzia kontatzea. Bere garaian hain gaizki pasatu nuenez, orain ez diot gaiari buelta gehiago eman nahi.

Garai ilunak bizi izan nituen, eta horiek oroitzean, barrena mugitzen zait. Aurretik ez nuen sekula depresiorik izan; bizitzako gertaera batek eraman ninduen depresioan sartzera. Garai oso gogorra izan zen; ezin nuen lorik egin, angustia izugarria nuen barruan, eta egoera hartan nengoen, iruditzen zitzaidan ez zegoela inolako irtenbiderik. Bere kasa funtzionatzen zuen nire buruak, zurrumbilo batean sartu zen, eta dena oso beltza ikusten nuen. Bakea behar nuen, eta iruditzen zitzaidan bake hori emango zidan gauza bakarra neure burua hiltzea izango zela. Askotan kritikatu egiten da norbaitek bere burua hil izana, baina ulertu egin behar da pertsona hori nola dagoen: zurrumbilo batean sartuta dago, eta ez du irteerarik ikusten; ezin du [negarrez hasi da].

Pertsona bat depresio batean dagoenean, zaila da zer gertatzen zaion ulertzea. Ingurukoek lagundu egin nahi dizute eta laguntzen dizute, baina haiek ez dute zure moduan bizi zuk barnean daukazun hori. Etxekoei zerbait kontatzen nien, baina ezin zuten ulertu nola nengoen, eta ezin zuten denbora guztian nik zer egiten nuen adi egon. Lagunekin ere, antzeko



zerbait gertatzen da, bakoitzak bere bizimodua egiten baitu. Eta zuk une oro hor egongo den zerbait behar duzu. Egoera horretan zaudenean, asko hitz egiteko beharra izaten duzu, baina ez duzu nahi izaten ingurukoei gehiegi kontatzea, haiek ez kezkatzeko. Horregatik, uste dut, egoera horretan egon daitezkeenentzako laguntzarik onena 24 orduko telefono zerbitzu bat litzatekeela, beharra duzunean deitzeko eta pertsona anonimo bati nola zauden azaltzeko, zurrumbilo horretan zaudenean norbaitekin hitz egiteko eta barnean duzuna askatzeko. Bere buruaz beste egiteko arriskua dutenentzat hori litzateke laguntzarik onena.

Neure burua hiltzen saiatu eta ez nuela lortu konturatzean, bizitzak beste aukera bat eman zidala sentitu nuen; berriro hasi behar nuela sentitu nuen. Familia ere egoeraren larritasunaz kontziente egin zen, eta batez ere, etxekoek lagundu zidaten aurrera egiten: gurasoek eta anai-arrebek. Horrez gain, tratamendua ere egin nuen. Baina, batez ere,

inguruak eta nik egin nuen ahaleginak lagundu zidatela esango nuke.

Gaur egun, pasatutakoa erabat gaingitu dudala esango nuke. Bizitzeko gogoia berreskuratu dut; aspaldi berreskuratu nuen, eta gustura bizi naiz. Baina gertatutakoa hor dago nire buruan, izkin batean. Esperientzia gogor bat bizi izan duzunean, hor gelditzen da, beste edozein esperientzia traumatikorekin gertatzen den bezala. Istripu larri bat izan duenari ere antzeko zerbait gertatuko zaiola pentsatzen dut.

Nik bizi izan nuen egoera beretik pasatzen ari denari laguntza eskatzea aholkatuko nioke. Egoera horretatik irtetea posible da. Depresioan murgilduta zaudenean, ondokoek esaten dizute hortik ateratzea posible dela, baina haiek joaten direnean, berriro ere zurrumbilo horretan sartzen zara. Horregatik behar duzu beti adi egongo den norbait inguruan, eta tratamendua, terapiak... guztia da lagungarria”.

“Senide batek bere burua hiltzen duenean, berriro ikasi behar duzu bizitzen, hasieratik”

“Ez da suizidioaz hitz egiten, baina gertatu egiten da, eta gaiari gizaratean duen estigma kendu behar zaio. Nik hitz egin izan dut gaiaz lagunekin eta, baina bestela, kalean inork ez dizu horretaz

galdetzen. Isiltasuna apurtzea eta gaia normaltasunez lantzea behar da. Horretarako, lagungarriak dira udalak antolatutakoak bezalako jardunaldiak.

Gure etxera bat-batean iritsi zen suizidioaren errealitatea. Duela urte batzuk, bere burua hil zuen nire senide batek. Erabat ezustean harrapatu gintuen gertaerak. Ez zeukan inolako sintomarik, ez zirudien ezer gertatzen zitzaionik. Mundua gelditu egin zen guretzat, erabat.

Hasieran shock egoeran nengoen; dena txarra ikusten nuen. Hain nengoen gaizki, zera pentsatzen bainuen: 'Nik ez dut horrela egon nahi bizitza guztian'.

Shock egoera hori pasatzean, burua bueltaka hasten da: 'Nolatan ez nintzen konturatu? Zergatik egingo zuen? Zergatik ez zidan ezer esan? Zergatik ez nion lagundu?'. Hori dena ezabatu egin behar da, ikasi egin behar da galdera horiek alde batera uzten. Oso arriskutsua izan daiteke gurpil horretan sartzea; burutazio horiek jan egiten zaituzte barrutik. Galdera horiei bueltaka ibili beharrean, zera planteatu behar duzu: 'Eta orain zer egin behar dut?'.

Etxeko guztiontzako sekulako kolpea izan zen, eta laguntza eskatzea erabaki genuen. Beharrezkoa iruditu zitzaigun laguntza eskatzea. Psikologo batekin landu genuen gaia. Lana norberak egin behar duen arren, hark bideratu gintuen; aurrera egiteko gakoak eman zizkigun. Zera azaldu zigun, adibidez: 'Pentsa zauri bat daukazula eta zauri hori garbitu egin behar dela. Izan ere, zauria garbitu gabe ixten baldin bada, zornatu egin daiteke, eta hori okerrago izango da'.

Terapia oso gogorra da; negar pila bat egiten genuen saioetan. Pentsatzera ere ausartzen ez ginen gauzak esanarazten zizkigun psikologoak. Hala ere, joanda baino hobeto, lasaiago, ateratzen ginen saioetatik. Pila bat lagundu zigun psikologoak, eta edonori gomendatuko nioke laguntza profesionala eskatzea. Zaila da, baina horrek askatu egiten zaitu. Egia esan, uste dut psikologoaren laguntzari esker gaudela orain gauden bezala. Uste dut ondo kudeatu dugula egoera.

Haurrekin gaia lantzea ere ez da erraza izan. Seme-alaba txikiak nituen senidea suizidatu zenean, eta haiei ere azaldu egin behar izan nien gertatutakoa. Hasieran, haien aurrean ezkutatu egiten nuen negarra, baina psikologoak esan zidan egiteko negar lasai: 'Negar egiteko beharra badaukazu egin, naturaltasun guztiarekin, baina gero altxa, beraien aurrean'.

Halako zerbait gertatzean, berriko ikasi behar duzu bizitzen, hasieratik. Nik urteak behar izan

ditut horretarako. Hiru urtez dena utzi nuen, dena. Hiru urte behar izan nituen indarra berreskuratzen hasteko; orduan hasi nintzen berriro lanean. Izan ere, hasierako urteetan, edozein momentutan negarrez hasten nintzen, eta pentsatzen nuen: 'Nola joango naiz ni lanera, edozein oroitzapen etorri eta negar batean hasten banaiz?'. Pixkanaka, edozein dolu prozesutan bezala, denborak baretu egiten du mina. Gertatutakoa ez da ahazten, inoiz ez da ahazten, baina baretzen joaten dira sentipenak. Nolabait esateko, ohitu egiten zara tristura puntu batekin bizitzera. Hala ere, horrek ez du esan nahi momentu onik ez daukazunik. Momentu onak itzuli egiten dira. Nire kasuan behintzat, galdutako senidea irribarrez oroitzeko gai naizen eguna iritsi da. Orain, nabaritzen dut hobeto nagoela.

"NIRE KASUAN BEHINTZAT, GALDUTAKO SENIDEA IRIBARREZ OROITZEKO GAI NAIZEN EGUNA IRITSI DA"

Nahiz eta urte pila bat pasatu, oraindik ere izaten ditut beheraldiak, eta izaten dut negargura. Baina beno, negar pixka bat egiten dut, eta aurrera. Hori normaltasun baten barruan onartzen dut orain.

Dolu prozesu 'normal' baten eta suizidio baten ostekoaren artean diferentzia bat dago: erantzunik ez duten galdera horiek duten pisua. Heriotza guztien ostean, azkenean, bera izaten da emaitza: maite duzun pertsona hori falta da, eta hutsune izugarria sumatzen duzu. Baina suizidio baten ostean, ondokoari sekulako kulpa sentimendua gelditzen zaio, eta hori da gainontzeko heriotzetatik bereizten duena; sekula erantzunik edukiko ez duten 'zergatik?' horiek duten zama.

Nik orain lasai hitz egin dezaket gaiaz, garbiketa lana eginda daukadalako. Egia esan, hasieran kalera atera eta egoerari aurre egitea baino errazagoa da ohean sartu eta ezkutetzea. Baina, gerora, lagungarria da ariketa hori egin izana, bere garaian indarrak ez zeuden lekutik atera eta laguntza eskatu izana. Gomendio hori emango nioke nire antzeko egoeran egon daitekeen jendeari.

Etxeko guztientzat izugarri gogorra izan da gertatutakoa, eta elkar asko babestu gara. Uste dut horrek lagundu digula honetatik irteten eta aurrera egiten". ■■■

Koh Tao

OSAGARRIAK +
PIERCING ESTUDIOA

📍 Jose de Kitzira, 14- 20730 Aizpitua ☎. 628 178 758

LAU

NEUMATIKOAK

PNEUMATIKOAK - MEKANIKA AZKARRA

943 053056 Lezio Iruka 20, 20730 Aizpitua

**JARRI HEMEN
ZURE IRAGARKIA!**

BETI ZUREKIN GIPUZKOA 943 903 450

Bertako Igagailuak-ekin, urteko 365 egunetan 24 orduz izango duzu gure zerbitzua. Solbuespenik gabe.





bertako
www.bertako.eus

NON DAGO UZTARRIA?




Lehiaketan parte hartzeko aurkitu aldizkarian Uztarria pertsonaia eta bidali erantzuna lehiaketakuztarria@gmail.com e-postara maiatzaren 20a baino lehen. Bazkidearen izena eta telefono zenbakia zehaztu behar dira.

Saria: Kutxillo urdaitegiaren produktu sorta.

Apirileko Uztarria aldizkarian Uztarria pertsonaia non ezkatututa zegoen asmatu behar zen: 14. orrialdean zegoen ezkatututa, eta Joxin Iturriotz bazkidea izan da irabazlea.



**URDAIAZPIKO,
HESTEBETEAk eta GAZTAK**

Etxeko berezitasuna:
EZKUR URDAIAZPIKO IBERIKOA



Eñaut: 656 79 14 19
Oier: 618 24 01 73
kutxillo@gmail.com
Damazo Azkue 6
AZPEITIA

"Ez beti, baina gehienetan esker oneko lana da gurea"

JABIER MAIZ UDAL BRIGADAREN KOORDINATZAILEA

Hogeita bost urtez igeltsero lanetan aritu ostean, hainbat arrazoi tarteko, lanbidez aldatu zen Jabier Maiz. Duela sei urtetik Azpeitiko brigadaren koordinatzailea da. "Pazientzia" eskatzen duen lana den arren, ofizioa atsegin duela dio Maizek. Mendizalea, euskaltzalea eta kobazalea ere bada, besteak beste.

Testua: **Maialen Etxaniz**. Argazkiak: **Maialen Etxaniz eta utzitakoak**. Marrazkia: **Olatz Alkorta**.


Askotariko lanetan aritutakoa da Jabier Maiz (Azpeitia, 1959), baina azken urteetan Azpeitiko udal brigadaren koordinatzailea da. "Lotura eta prestutasun handia" eskatzen duen eginbeharra den arren, atsegin duela dio. Jantzi laranja soinean ikusiko dute herritar ugari, eta askok joko zuten harengana arazoren bat edo beste konpontzeko eskean. Udal brigadako langile izatetik aparte, ordea, baditu beste hamaika zaletasun.

Arantzazun (Gipuzkoa) egin zituen ikasketak Maizek, eta, ondorioz, "frailekumea" dela dio, barrez. Unibertsitatera Bideratzeko Ikasturtea (UBI) amaitu eta selektibitatea egin zuen arren, gazteagoa zela hasi zen lan munduan murgiltzen. "15 urterekin Danonan hasi nintzen lanean, eta bederatzi-hamar urte inguru egin nituen han. Ondoren, pare bat urtez zerbitzari lanetan aritu nintzen, anaiaren tabernan. Dena den, nire betiko afizioa eta ofizioa igeltsero lana izan da", kontatu du. Hain zuzen, hogeita bost urtez aritu zen igeltsero lanetan, eta ondo gogoan ditu urte haiek. Mimos oroitzen ditu, gainera: "Igeltsero aritzea izan da nire betiko afizioa; izan

ere, eginda, gorpuztuta edo jasota gelditzen den lana da gehien gustatzen zaidana. Iñaki Aizpurrenean ibili nintzen lanean urte luzez, eta bide hori bukatuko zela ikusitakoan hasi nintzen beste zer lan egin nezakeen pentsatzen, halabeharrez. Garai hartan ekin nion udal brigadetarako azterketak prestatzeari".

Azpeitiko udal brigadara iristerako, Maizek bazuen eskarmentua. Aurrena, Bergarako (Gipuzkoa) udal brigadan aritu zen lanean, igeltsero gisa. "Lan bila nenbilen, eta Bergarako udal brigadarako lan poltsa ireki zutela ikusita, izena ematera animatu nintzen. Oso ondo kontrolatzen nuen igeltsero ofizioa, urte luzeko esperientzia nuelako, baina hori ez zen nahikoa postua lortzeko. Azterketaren zati teorikoa prestatu behar izan nuen, eta orduak eta orduak eman nituen testak egiten. Hura izan zen horrelako zerbait egiten nuen aurreneko aldia", gogoratu du. Horren ondotik hasi zen azterketatik azterketara, Azpeitira iritsi arte: "Bergaran nengoela jakin nuen brigada arduradun posturako lan poltsa ireki zutela Zestoan, eta izena eman nuen. Ez nuen posturik lortu, baina handik gutxira Azpeitian ireki zuten lan poltsa, eta saiakera egin nuen. Bergarako

JABIER





brigadan nebilela deitu ninduten Azpeitiko Udaletik. Baiezkoa eman nuen, etxetik gertu lan egiteak dituen abantailez jakitun".

Beharrei erantzuteko ardura

Gremioka banatuta dago Azpeitiko udal brigada: arotzak, igeltseroak, margolariak, elektrikariak, lorezainak... daude talde horietan. Arlo horietako langileen zereginak zehaztea eta koordinatzea da Maizen eginbeharra gaur egun: "Azpeitian sortzen diren askotariko beharrak brigadaren gremio edo taldeen artean banatzen ditut. Zeregin zehatzak brigadako gremioetako langileek egiten dituzte, eta nire lana da langileen eginbeharrak sailkatzea, ordenatzea eta koordinatzea. Herritarren eskaerei erantzuteko, langileekin harremanetan jartzeaz eta eskaerak bideratzeaz arduratzen naiz nolabait". Gremioak eta zereginak koordinatu ez ezik, eginbeharren jarraipena ere egiten du Maizek.

Lanbidez gehien zer atsegin duen galdetuta, hark dio brigadarena, oro har, esker oneko lana dela: "Ez beti, baina gehienetan esker oneko lana da gurea. Gauzak zuzentzea da brigadaren zeregina, udalak zein herritarrek egindako eskaerei erantzutea, eta zentzu horretan, jendeak eskertzen du brigadak egindako lana". Ofizioaren alderik txarrena ere horri lotuta dagoela dio: "Izan ere, zenbaitetan, ez dugu jendeak nahi bezain azkar lan egiten edo ez dugu aurrenekoan asmatzen, eta haserreak ere izaten dira tarteka. Zaila da guztiak gustura gelditzea". Horri lotuta, "pazientzia" edukitzeaz aparte, "kontzientzia lasai" izatea garrantzitsua dela dio: "Finean,

udalaren irizpideak jarraitzen ditugu guk, eta horiek kontuan hartuz, gure eginbeharrak ahalik eta ondoen gauzatzen saiatzen gara".

Ohiko lanegunez aparte, egun edo ordu berezietan ere lan egin behar izaten du udal brigadak, eta horrek baditu bere alde txarrak. Dena den, Maizek dio festetan ez dela egunerokoan baino lan askoz gehiago egoten: "Beti esaten dut festetan ez dela ohi baino lan gehiago egiten. Astegunetan jendea ez da ohartzen brigadak zer-nolako lana egiten duen, baina festetan ezorduetan ibiltzen garenez, gehiago bistaratzen da brigadaren lana; langileen txaleko laranjak-eta gehiago ikusten dira. Festetan lan egitearen gauzarik zailenetakoa presioa izaten da; izan ere, zerbait antolatzen duenak dena ondo atera dadin nahi du, eta presio horrek neke handia eragiten du".

Beharra dagoenean, udal brigadaren koordinatzailea "bertatik bertara" egotea garrantzitsua dela uste du Maizek, eta horregatik dio ofizio hori duenak edozein unetan lanerako prestutasuna izan behar duela. "Askotan sortzen dira ezusteko beharrak, eta horiei erantzuteko herriatik gertu egotea garrantzitsua da. Nik, zentzu horretan, zorte handia daukat, bizi naizen herrian bertan egiten dudalako lan". Kontuak kontu, bere ofizioa atsegin duela dio udal brigadaren koordinatzaileak, eta "oso gustura" dagoela aitortu du.

Arantzazun ikasitakoak, zaletasun

Lanetik ateratzean, zaletasunei egiten die leku Maizek. "Arantzazun ikasi nuen, eta han barneratu nituen egun ditudan zaletasun guztiak. Euskaltzalea naiz, kobazalea, mendizalea... Arantzazun igarotakoak urte erabakigarriak izan ziren", kontatu du.

Jabier Maiz

- **Jaiotze data:** 1959ko abenduaren 3a.
- **Ikasketak:** UBI artekoak.
- **Lanbidea:** Udal brigadaren koordinatzailea.
- **Brigadako koordinatzaile ez banintz...** Igeltsero izango nintzateke.
- **Lanetik ateratzean gogoko dut...** Mendira joatea edo kirola egitea.



Ikasketaz eta ofizioz arkeologoa ez bada ere, kobazalea izanik, Antxieta arkeologia elkarteko kidea izan zen Maiz urte luzez, eta hainbat aurkikuntza egin zituen orduko kideekin batera. Sasoi hartako "oroitzapen ederrak" ditu, eta gaur egun elkarteko kide ez den arren, oraindik badu gaiarekiko interesa. "Gure garaian, arkeologian aritzeko, jakintza baino garrantzitsuagoa zen ikasteko gogoia edukitzea. Horrek gaien sakontzeko grina piztu zigun askori. Gainera, hainbat aurkikuntza egin genituen, eta sekula ahaztuko ez ditugun une zirrargarriak bizitzeko aukera izan genuen. Jarraikotasuna eskatzen duen lana den arren, ederra da inguru hauetako

aintzinako gizakien arrastoa jarraitzea", dio. Arkeologiak, historiak nahiz antzeko gaiek jakin-mina pizten diotela aitortu du: "Iberotarren garaiko kontuak, Euskal Herrikoak, Espainiakoak, historiari lotutakoak... asko interesatzen zaizkit. Kateatu egin nauen zaletasuna da, eta ez jakintza intelektuala ematen didalako; kuriositatea asetzeko modu bat da niretzat".

Azken boladan, mendian ibiltzea ez ezik, yoga praktikatzea, irakurtzea nahiz bilobarekin egotea ditu atsegin, eta horiez gozatzeko aprobetxatzen du lanetik ateratzean gelditzen zaion denbora. "Ahal den bitartean horretan jarraituko dut". ■



URRATEGI
INTERIORISMO
barru diseinua


Arretxe 9
20730
Azpeitia
943-85 72 44

Arrogueta 27
20600
Elbar
943-85 72 44



www.urrategiinteriorismo.com

dica www.dica.es



IRUDI ENGAINGARRIAK

Letik 10era zenbatuta dauden zati hauetatik erdiak engainagarriak dira, hau da, ez daude irudi nagusitik hortuta. Bereiz itzazu onak eta engainagarriak.

ZENBAT?

Bide batez, zenbat saguzar ikusten dituzu irudi handian?

HAMAİKA IKUSTEKOAK

Aurki itzazu bi irudien artean dauden aldeak. Hamaika dira guztira.





Zein da zein? Hegazti guztiei 'txori' esatea ez da oso zehatza, ezta? Lotu txori bakoitzari dagokion izena.

Jarri marrazki bakoitzari dagokion hizkia eta zen diaten jakingo duzu.

Hizki-Marrazki



Handitik txikira

Ordenez itzazu txitak handitik txikira, hau da, handienari 1 zenbakia emanaz eta txikieneri 6.

Sudokua

Saia edo putrea hegazti sarraskijalea da, oso ezaguna. Bete itzazu hutsuneak PUTREA hitza osatzen duten hizkiez (P, U, T, R, E eta A). Gogoratu hizkiek behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.

		T	E		
E	P			U	A
	R			E	
	T			R	
R	A			T	E
	E	U	R		

Soluzioak ikusteko:

www.plazanbazan.eus/



IMH LANBIDE HEZIKETA FORMACION PROFESIONAL

heziketa zikloak

Erdi eta Goi mailako zikloak
Especializazioak

Elgoibar
Maiatzak 7
11:00etan
Informazio saioa
Hartu lekua!





IzarJai
Bilbao - Barakaldo - Ibaeta

DUN
KIN
A

DAGOENeko SALGAI

Amets egiteko ordua da

- Igerilekua, lorategia eta txokoa duen urbanizazio pribatua.
- 2, 3 eta 4 logelako etxebizitzak eta solariuma duten atikoak.
- Terraza zabalak etxebizitza guztietan, bista irekiak.
- Etxebizitzatik igogailuan sarbide zuzena duten garajeak.

www.izarjai.com

GRUPO EIBAR
AZKOITIKO GRUPO EIBAR-EN BULEGOA
Julio Urquijo Etorbidea 30

618 614 541
comercial@grupoelbar.com
www.grupoelbar.com

KURUTZIA

Irudi berrak ez dira irudiak

Geure pausoen jabe



IMANOL AMIANO

Bilboko Plaza Barriko jatetxe batean zer bazkaldu aukeratzera gindoazela izan genuen gertatutakoaren berri; mahaian eseri ginen eta, eskatu aurretik, begirada azkar bat whatsappari; izoztuta geratu nintzen *radiopatiok* zioena ikustean; baieztapena, Uztarriaren webgunean: "Iñaki Segurola *Ogrue* hil da", zioen Ihintza Elustondok albistearen izenburu hotz bezain argigarrian. Ez dakit zergatik, baina ez ninduen harritu, bere *viacrucisaren* berri ez nuen arren. Hiltzeko eguraldia zegoen, nonbait, Ostiral Santu, ostiral madarikatu hartan. Leihotik begiratu nuen. Hirurak jo berri zituen Euskaltzaindiaren eraikineko frontoian kokatutako erlojuak. "Goorra dek", pentsatu nuen, "Ogrue bera urgazle zen erakundearen egoitza aurrean jasotzea berria". Axola izango balu bezala.

Atraskuako Abel eta zerbeza batzuk tarteko ezagutu nuen. Hitz-jokoetarako –lagun batek dioen moduan, umore psikologikorako– joera ia patologikoa dugu, genuen, eta Gaztetxean antolatutako bertso-saioan gai-jartzaile egingo ote nuen galdetu zidan; eta nik ezin asmatu nola esan ezetz, nola esan nire ustezko bezain zalantzazko abilitadea ez zela bertsogintzarekin ondo uztartzen, zortziko txikia zein

handia ez nituela ondo kontrolatzen, bertsoak ez zitzaizkidala gustatzen, alegia. Hobeto ezagutu izan banu, plaust botako niokeen bertsoek aspertzen, gogaitzen nautela, berak egingo zukeen moduan, bestalde.

"Hik ze eitek hamen?", bota zidan harrituta, Lakarraren bulego aurrean topo egin genuenean. Garai hartan, Ogrue zapata-kaxatan bildutako ehunka, milaka hitzen fitxak hiztegi etimologikora iraultzen zebilen bere ikaskide zein pisukide ohi eta ordurako euskal filologiaren jainko txiki-handia zenarekin; ni, berriz, kirol-kazetari arrunta, eta haren eskemetan ez zen sartzen *sasikazetaritzan* ziharduen norbaitek filologia bezalako kontu jasoez interesa izan zezakeenik. Zorrotza eta garratza baitzen Ogrue. Samurra ere bai, beharbada. Eta eskuzabala, hala banatzen baitzituen zaplaztekoak, uhinen zein paperaren bitartez. Gogoak emandakoa idazten zuen, esaten zuen eta bost inporta hari norbaiti hitzok kontrako eztarririk joanez gero. "Nik

**ASKOTAN LUBIZIAN
ERORTZEN DOAN
HARRIA, ELUR-JAUZIKO
MALUTA ZIZTRINA
BAINO EZ GARA**

haunditten Ogrue izen nahi diat", esaten nion neure buruari.

Korapilatua, korapilatsua zen, "gehitxo", askotan, berak aitortu moduan; baita bere jarduna ere. Transgresioa, probokazioa zituen gustuko –ziur nago bere eskela *xilbextrea diariovascon* ere ikustea gustukoa izango zukeela–. Hark ere, ordea, irakurle eta entzuleen epaiaren zain dagoen beste edonork bezala, ezkututzen zituen kontuak. Ezkutatu-edo, ez azaleratu, azalarazi, bere-bereak zituen sentimenduak; gertukoenenak, norberarenak, barru-barruan min egiten dutenak, geure-geureegiak direnak ez baitira inori kontatzekoak, ez behintzat kontatu nahiko genituzkeen moduan.

Aste hartan bertan agurtu genuen elkar, paseoan. Geure pausoen jabe garelakoan, askotan lubizian erortzen doan harria, elur-jauziko maluta ziztrina baino ez gara. Ostiral Santuan bizkarrean daramaten pausoa, besteren pausoa doan pausoa.

Bazkaltzeko ordua zen eta, Euskaltzaindiaren eraikinaren itzalpean, Plaza Barriko jatetxe hartan zer aukeratu ari ginela izan genuen, bai, Ogruen agurraren berri. Jan-edana eskatu eta bere omenez egin genuen topa. Berak egingo zukeen moduan. Edo ez. Auskalo. ■

Herria gal-gal eta dantzan

TESTUA: MAILO OJARZABAL

ARGAZKIAK: UTZITAKOAK

1972ko abenduan, 11 egunez, euskal kulturaren erakusleihu bete, oparo eta zabal bihurtu zen Azpeitia. Folklore eta abangoardia, tradiziozko eratorritakoa garaikidearekin uztartuta, egin zituzten Urola Ibarreko Biltzarrak izeneko jardunaldiak. Eskultura, pintura, musika, dantza, zinema, bertsoak, emanaldiak, erakusketak, liburu eta disko azoka, hitzaldiak... Aretoak eta kaleak beteta, egunero, abenduaren 7tik 17ra, eta punta-puntako egileak eta eragileak tartean: Txillida, Balerdi, Mendiburu, Zumeta, Sistiaga, Ez Dok Amairu, Debako Eskola...

Jardunaldi aberats haiek egin zirela 50 urte beteko dira datorren abenduan, eta harridura eta miresmena eragiten du, gaur egungotik begiratuta, Urola Ibarreko Biltzar haien egitarauan elkartu eta eskaini zutena ikusteak. Urola Ibarreko Biltzarrak, ordea, ez ziren ezerezetik edo egun batetik bestera sortu, testuinguru jakin, konplexu eta gatazkatsu batean baizik. Biltzarrez eta testuinguru hartaz badakite zerbait Joxemari Aranbarrik (Azpeitia, 1947), Mikel Lizarralde (Azpeitia,

1946) eta Inaxita Bereziartuak (Azpeitia, 1942). Frankismoaren azken urteak ziren, urtebete lehenago izan zen Burgosko Prozesua, lau urte lehenago hil zuen ETak Meliton Manzanos eta 68ko Maiatza gertatu zen Parisen, Elizaren eragina eta kontrola nabarmenak ziren artean gizartean, eta diktaduraren botapean klandestinitatera kondenatuta zeuden politikaren edo sindikalgintzaren bueltan lan egin nahi zuten taldeak eta erakundeak. "Bero-bero ari ginen errepresioa bizitzen eta herria gal-gal zegoen", dio Aranbarrik. "Ikusten zen frankismoa bukatzen ari zela eta denetarik mugimenduak zeuden. Bultzada bat zegoen, zeozer egiteko nahia, eta jendea prest. Hor, tartean, batzuek nahi hori antolatzen jakin zuten", adierazi du Bereziartuak.

Artzeren hauspoa

Zeozer egiteko nahia, "dena egiteko" zegoen garaian. "Dena politizatuta" zegoela ere

UROLA IBARREKO BILTZARRAK EGIN ZITUZTELA 50 URTE BETEKO DIRA ABENDUAN

nabarmendu du Lizarralde, dena debeku zen urte haietan.

Kultura eta kulturgileak ez zeuden giro hartatik aparte. Azpeitikoa ez zen izan euskal kulturaren bueltan antolatu zen lehen egitasmo indartsua. 1972an bertan, udaberrian, lehen Kultur Hamabostaldia egin zuten Tolosan (Gipuzkoa), eta han ere lehen lerroko kulturgileak eta artistak elkartu zituzten. Tolosako zein Azpeitiko eragileei hauspoa eta laguntza emanez, berriz, Joxean Artze. Eta Tolosako eta Azpeitiko erakustaldien tartean, txanpon beraren bestaldea eta, era berean, Artzeren "motibazio" bihurtu zen *Los Encuentros de Pamplona*, nazioarteko arte garaikidearen jaialdi aberatsa eta ofizialki ondo babestutakoa, euskal kulturari Gipuzkoan eskainitakoak ez bezala.

Karmelo Etxegaray izena hartu zuen Urola Ibarreko Biltzarren talde antolatzaileak. Herriko hainbat gaztek osatu zuten talde sustatzailea, eta horien artean zeuden Lizarralde eta Aranbarri; inguruan, beste hainbat lagun, Bereziartua tartean. Biltzarren antolaketa "talde lan eskerga" izan zela nabarmendu nahi izan dute hirurek, baina Javier Arozena *Atxa* eta Maitere Zinkunegi



Ezkerretik eskuinera, Mikel Lizarralde, Inaxita Bereziartua eta Joxemari Aranbarri, Antxieta Etxea atzean dutela. MAILO OIARZABAL

"aipatu gabe ezin" direla utzi adostu dute. "Esango nuke eskola desberdinetatik gentozen bi taldek egin genuela bat lan honetarako –dio Aranbarrik–. Denok ginen mugimendu kristau-katolikoak zituen hainbat elkarte eta erakunde zapaldutakoak". Kongregazioa, JOC (Juventud Obrera Catolica) eta Herri Gaztedia aipatu ditu Aranbarrik. Hortik zetozen, baina beste bide batzuk jorratzen hasiak ziren, Lizarralde zehaztu duenez.

"Talde sustatzailea klandestinitatetik sortu" zela dio hark: "Garai hartan, Movimiento Socialista de Euskadi zeritzonean genbiltzan, sustatzaileen nukleo gogorra hori zela esan daiteke. Adar asko zituen MSEk. ELAkoak ginen gu, baina ez ELAkoak sindikatu gisa. Klandestinitateak dena nahasten du. ELAko buruak, sindikatukoak, erbestean zeuden. Baina hemen gazte mordoak geunden, eta

sindikatu adar bat izan zedin nahi genuen". Testuinguru gehiago, garaiaren nahasiaren adierazgarri.

Urtebetez aritu ziren herriko gazte haiek Artzerekin lanean, Urola Ibarreko Biltzarrak izango zirenak antolatzen. "Hamar egun horietan herria alienazioarekin, telebistarekin, irratiarekin, prentsarekin... ahaztea lortu behar dugu. Herri osoa murgildu behar dugu biltzarretan', esaten zuen Artzek. Eta hori lortu egin

genuen", kontatu du Lizarralde. Egitaraua osatu zutenean hasi ziren egitasmoa herrira zabaltzen. "Herria inplikatu behar zen, herri osoa, hori argi geneukan. Eta herria inplikatze, soziedadeek zeuden". Herriko soziedadeetako jendearen babesa eta elkarlana lortu zuen talde sustatzaileak, eta ez lanerako bakarrik. "Gure izenak ezin ziren agertu antolatzaile gisa", azaldu du Lizarralde, "asko nabarmentzen" zirelako; "orduan, soziedadeetako buruen izenean eskatu ziren baimenak eta, eta biltzarren sustatzaile publiko elkarte gastronomikoak izan ziren", gaineratu du. Hura guztia aurrera ateratzeko finantziarioa ere herritarrei esker lortu zuten: bonuak saldu zituzten herrian, eta ekimen hark ere oso harrera ona izan zuen. "Orduan ez zegoen dirulaguntzarik, e?", bota du Bereziartuak.

Apurtzaileak

Herritarren babes eta parte hartze handiarekin egin zituzten Biltzarrak, baina kontrako ahotsak ere izan zituzten. Biltzarrak iragartzeko Jose Luis Zumetak propio egindako kartelaren inguruko jarduna aipatu du Lizarralde, besteak beste: "Herriko integristak



Zumetaren kartela.

kontra jarri ziren. 'Begira, ikurrina ipini dute hor, ikurrina! Eta horko beltz hori apaiza da, antikerikalak dira!'. Kartelaren gaineko horrelako interpretazioak egin zituzten". Artzeren helburua bete zenaren seinale, jardun horiek ere. "Konklusioa da herri osoa mugimenduan eta dantzan jarri genuela, lortu genuela herri osoa biltzarrez hizketan jartzea eta ahaztea telebistaz eta gainerako beste guztiaz".

Aurreko hamarkadetatik zetozen Euskal Festak eta Euskal Herriko kulturaren abangoardia uztartu nahi izan zituzten Biltzarretan, baina ekuazioaren bigarren zatiak eman zuen hizketagai gehien. "Biltzarrek euskal festek zeukatena jaso, eta horri zetorren berria itsatsi zioten.

Berri hori apurtzailea zen, horren isla da egitaraua", dio Aranbarririk. Arte adierazpen guztietan "estilo nagusia" abstrakzioa zen. "Abstrakzioa lehendik zetorrenarekin itsastea izan zen... egundokoa", Aranbarriren esanetan; zenbait emanalditan ikusleek izandako erreakzioen gaineko hainbat anekdota ekarri ditu gogora, umorez. "Eztanda izan zen, talka bat", erantsi du Lizarralde.

Oroitzapen, pasarte eta anekdota ugari dituzte hirurek Urola Ibarreko Biltzarrak egin zituzten egun haietaz. Bukatutakoan, "sentipen onarekin" gelditu ziren, baina ez zuten esperientzia errepikatu. Haustura garaiak etorri ziren berehala, onerako edo txarrerako, eta beste bide batzuk hartu zituzten Biltzarren bultzatzaileak. "Garai hartan dena zegoen egiteko. Fronte asko zeuden irekita, eta biltzarren kontzeptua pixka bat alde batera laga zen", azaldu du. Fronte horietako batzuk aipatu dituzte, baita haustura mingarri batzuk ere, eta orduan hasitako bide berrietako batzuek gerora emandako fruituez hitz egin dute. "Orduko mugimenduen analisi sakona egiteko" dagoela diote, eta egiteak merezi duela uste dute. ■■■



Abenduaren 17an, Biltzarren azken egunean, zazpi dantza talde, gehienak Nafarroatik etorritakoak, kalez kale dantzan ibili ziren goizean, eta ekitaldi hartan hartutako irudiak dira hauek.

LURDES ELORZAK UTZITAKOAK

Gero



IONE GURRUTXAGA

Azkenaldian boladan dagoen hitz batekin egin dut topo ondoko lerroak idazteko buruari bueltaka hasi naizenean: *prokrastinatu*. Inguruko hizkuntzetan, bai, hitza onartua dute, eta, nahiz eta Euskaltzaindiak oraindik ez duen egin bere hiztegia ekartzeko urratsa, euskaldunok aspalditxoan ulertzen dugu zer esan nahi duen aho-korapilotik gehiago duen hizki multzoak: "zergatik egin gaur bihar egin dezakezuna?". Eginbeharrak geroko uztea da prokrastinatzea, baina ez goerak horretara behartu gaituelako, baizik eta, geure borondatez, garrantzi txikiagoa edo presarik ez duten beste egiteko batzuk aurretik jarri eta benetan amaitua behar duena ahalik eta gehien luzatu dugulako.

"Zenbat kalte egin duen, luzamendutan ibiltzeak, egitekoen geroko uzteak". Ez da gaur goizeko esana: Pedro Agerre *Axular*-ek *Gero* lanaren sarreran idatziak dira hitz horiek, orain dela ia 400 urte. Erljio betekizunei buruz ari zen Sarako erretorea orduan, baina, gaur egunera ekarrita, beste edozein testuingurutan aplikagarri suerta daitezke hitzok. Eta, behin honaino helduta, neuk bota beharko dut lehen harria, aktualitatearen aitzakiapean, *Uztarr*a-rako hitz segida hau

idatzi behar dudan aldiro, ordenagailuko orriak zuri irauten baitu azken unera arte. Gehiago luzatzerik ez, eta bidaltzeko garaia gainean izan arte egoten da kurtsorea geldirik, badaezpada ere, mundua goitik behera aldatuko duen zerbait gertatuko ote den, hari buruz idaztea hil ala bizikoa izango ote den aldizkari honetako orriak betetzeko. Baina zaharkitze programatuari buruz hainbeste kontu esaten diren garaiotan, lerro hauetan idatzitakoak publikatzerako, aipagai diren gaiak historia liburuetan sartzeko moduan izaten dira: nork espero behar zuen, bestela, egun batetik bestera bizitza hankaz gora jarri digun xomorro baten gorabeherak Europa aldeko tiro eta bonba hotsek isilduko zituztenik?

Azkar bizi gara. Eta mundua, gurekin batera, gure erritmoan, azkar dabil. Albistegietan berritasun dena berehala iraungitzen zaigu, berehala ahazten, nahikoa lan baitugu geure egiteko guztiak 24 orduren barruan errenditzen.

BARKA DIEZADALA AXULARREK, BAINA PROKRASTINATZEAREN ALDE EGITEKO GARAIA IRITSI DELAKOAN NAGO

Erlojua bihurtu dugu agintari goren, eta, bat bukatzerako, ondoren egin behar duguna daukagu buruan: ohetik jaikitzerako, goizean zehar egin behar ditugun guztiak erreparatzen ditugu; egingo ditugun pausoak milimetrikoki planifikatzen ditugu, azken segundoraino aprobetxatu nahian; eta lanerako bidea tramite hutsa da egunerokoan, ahalik eta azkarren iristea helburu bakar. Errutinatik irtenda, oporrak lasaitzeko garaitzat hartzen ditugu, baina, munduaren beste muturreko paradisuetara iritsita, nola gelditu parean daukagun guztia geure begiekin ikusi gabe, horretarako korrika eta presaka ibili behar badugu ere?

Barka diezadala *Axularrek*, baina prokrastinatzearen alde egiteko garaia iritsi delakoan nago: zertarako balio du presaka bizitzeak, dena momentuan amaitzeak, egin beharrekoak emaitzari begira bakarrik egiteak, burura iristeko bidean ez badugu gozatu? Has gaitezen egitekoak pixka bat atzeratu, arnasa lasai hartu eta egiten ari garenaz egiten ari garen uean bertan gozatzen, biharko egunean ez dezagun sentitu, presaka bizita, gauza asko egin bai baina, bizi gabe, pasatu egin ditugula. Batzuetan hala uste ez badugu ere, bihar ere argituko baitu eguna. ■

EDUKIEN SORKUNTZA

• EDUKIEN SORKUNTZA EUSKARAZ ETA GAZTELANIAZ, HAINBAT EUSKARRITARAKO.

- COPYWRITING DIGITALA.
- EDUKIEN MARKETINA.
- STORYTELLING-AK.



GUKA       ZERBITZUAK

Tel.: 943-81 38 41 • www.gukazerbitzuak.eus



AURREMATRIKULA MAIATZAREN 9tik 27ra

WASTETZE PUBLIKO
DOAKOA

UNI
EIBAR
ERMUA

UNIBERSITATEA



F

- EGOKITZAPEN FISIKOA
- GIZARTE ETA KIROL IRAKASKUNTZA ETA ANIMAZIOA



M

- NAZIOARTEKO MERKATARITZA
- GARRAIO ETA LOGISTIKA
- MERKATARITZA JARDUERAK

ESPECIALIZAZIOAK

ZIBERSEGURTASUNA
INFORMAZIOAREN
TEKNOLOGIEN
INGURUNEETAN



A

- ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK
- + Administrazioa eta Finantza eskaintza pertsonala arazoetarako
- ADMINISTRAZIO KUDEAKETA



I

- SAREKO INFORMATIKA SISTEMEN ADMINISTRAZIOA
- WEB APLIKAZIOEN GARAPENA
- PLATAFORMA ANITZEKO APLIKAZIOEN GARAPENA
- SISTEMA MIKROINFORMATIKOAK ETA SAREA

www.uni.eus Oteola Herrikoia, 29 | 20600 Eibar, Gipuzkoa | 943 89 52 11 | idazkaria@uni.eus | Rn1.eus (348)

AURREMATRIKULA

Maiatzaren 9tik 27ra

Anima zaitez!

info gehiago gure
webgune eta sare
sozialeetan

943 20 32 44
eibar@armeriaeskola.eus
www.armeriaeskola.eus

"Ebarkizun baben oraina"

ArmeriaE

ArmeriaEskola^x



Ernaldutako haziak, hazten

Joxe Arzallus (Errezil, 1953) eta Esteban Orbegozo (Azpeitia, 1956) duela zortzi urtetik dira Azpeitiko baratze parkeko erabiltzaile. Ordutik, beren eskuekin landatutako haziak hazten, barazki bilakatzen, ikusi dituzte. Baratzeke egunerokoaz, barazkien prozesuaz nahiz beren esperientziatz hitz egin dute.

Argazkiak eta testuak: **Nora Alberdi.**

HASTAPENAK

Joxe Arzallusen alabak baratze bat nahi zuen. Hori horrela, Azpeitiko Udalaren eskaintzan izena eman zuen, eta lursail bat tokatu zitzaion, Otzakako baratze parkean. Alabak baratzeaz jakintza gutxi zuenez, hari laguntzen hasi zen aita. Orbegozoren kasuan ere, semeak hartu zuen baratzea: "Joxeren moduan, lehen urteetan semeari laguntzen hasi nintzen, eta gaur egun, nik gehiago zaintzen dut baratzea". Ezkerreko irudian, patatak hazten Otzakako baratze parkean.



TERAPIA

Arzallus baserrian hezi zen, baina ez zuen lan asko egin han. 20 urterekin Azpeitira ezkondu zen, eta ordutik aurrera fabrikari egin zuen lan, jubilatuta arte. Denda bat ere izan zuen 30 urtez. Orain, baratzean aritzea asko gustatzen zaio; haren bueltan sortzen den giroa nahiz egindako lagunak terapia dira harentzat: "Gustura jasotzen ditut barazkiak. Etxean jaten ditugu horietako batzuk, eta besteak oparitu egiten ditut. Saldu ez, debekatuta dago eta". Goiko argazkian, Otxakako baratze parkeko zenbait erabiltzaile.



SORPRESAK

Orbegozo jubilatuta dago egun, eta harentzat "entretanimendu ederra" da baratzerara joatea: "Askok gozaten dut barazkiak nola hazten diren ikusten. Plastikoan bildutako supermerkatuko barazkien eta norberak baratetik jasotako artean alde handia dago. Oso polita da neuk eraldutako hazia nola hazten den ikustea". Dena den, sorpresak ere jasotzen dituztela nabarmendu du: izan ere, barazkiak ez dira beti nahi bezala hazten, zenbaitetan eguraldiagatik, eta beste batzuetan, ezagutzen ez dituzten arrazoiengatik.



HARREMANA GALTZEN

Oro har, gizakiak lurrarekin duen harremana murrizten ari dela dio Orbegozok: "Jendea oso modu artifizialean bizi da. Guk, gutxienez, badugu baratzearekin harremana izateko aukera. Orain produkzio handiak egiten dira: tomateentzako negutegi handiak, porru sail izugarriak... Ganaduekin ere gauza bera gertatzen da. Gaur egun, baratze gutxi ikusten da inguruotan. Nire ustez, matematika bezelaxe, barazkiak nondik datozen irakatsi beharko litzateke eskolan". Ezkerreko irudian, porruak hazten.

ALDIAN ALDIKOA

Arzallusek azaldu duenez, urtearen hasieran, normalean, ilarrak eta baba handiak landatzen dira; orain, berriz, patatak; eta hemendik gutxira, tomateak, piper mota guztiak, kalabazak, kalabazinak eta marrubiak. Negua, bestalde, porruak, azak eta azaloreak landatzeko sasoia izan ohi da. Zenbait erabiltzailek espezieak landatzeko ohitura ere badute. Orain arte perejila eta menta ziren nagusi, baina gaur egun aniztasun handia dago. Eskuineko argazkian, zerbak.



TOMATEA

Orbegozok dioenez, inguruotan tomatea landatzea da zailena. "Euria, hezetasuna eta hodeiak lagun txarrak dira tomatearentzat, eta ezer bota gabe irtetea zaila da". Dena den, irteten den tomatea ona eta gozoa dela dio Arzallusek: "Hezetasunak izorratu egiten ditu, baina irteten diren horiei gozoago izaten laguntzen die hezetasunak. Batzuetan irteten dira eta bestetan ez, baina ez du axola; baratzean aritzea guretzat entretenimendua da, ez gara hemendik bizi". Ezkerrean, barazkiak hazten laguntzeko makilak gordetzeko etxola.



KARAKOLAK ETA BAREAK ETSAI

Baratze parkeko erabiltzaileek arazoak izan ohi dituzte karakolekin eta bareekin. Orbegozok barazkien inguruan arrautza azalak txikituta jartzen ditu animalia horiek uxatzeko. Beste zenbait erabiltzailek garagardoa jartzen dute, gune horretara hurbiltzean bertan ito daitezten. "Goizean goiz esnatu eta banan-banan harrapatzea da beste aukera da. Batzuek, ordea, esango dute hori ez dagoela ondo, karakolak ere bizidunak dira eta", dio Orbegozok. Goiko irudian, arrautzak txikituta, barazkien bueltan.

ERABILTZAILE BERRIAK

Hasieran baratze parkeko lurra jubilatuentzat soilik ziren. Gero, lanik gabe zeudenak ere hasi ziren horiek ustiatzen, eta orain herritar guztiek dute horretarako aukera. Lehen, handiagoak ziren lursailak, eta egun, berriz, txikiagoak. Norbaitek jarraitu ezin duenean, aspertuta uzten duenean edo erabiltzaileak hiltzean sortzen zaie erabiltzaile berriei baratze parkean aritzeko aukera. Hala, urtean zehar libre gelditzen diren lursailak izena eman dutenen artean zozkatzen dituzte. Ezkerreko argazkian, Otxakako baratze parkearen sarrera eta erabiltzaileen materiala gordetzeko txabolak. ■■■



SOKA LUZEAN



MIEL A. ELUSTONDO

Eta orain mina

Eta zer iruditzen Iñakiren gainean hitz egitea, *Ogrue* omen. Eta jakin nahiko nuke noiz zeinek zer dela-eta asmatu zion gaitzizena, baina honezkero berdin zaio, ezta? Eta zer inporta du, inporta duena, eta asko baino gehiago, da ez dagoela gure artean, joan egin zaigula, orduz lehen, oso orduz lehen ere, eta Betharrandarretako garaian ikusiko nuen estreinakoz, baina zer kasu egin behar nion nik, ni baino bost urte umeago zen denok ume ginen garai hartan, Betharrandarrak ikastetxea estreinatuta genuen sasoiari, Gogortza Lekuona Oteiza Aiala eta geroago Aiertza, aurreko patio hura harrikoskorrez beteta zegoen denboran. Eta gero kitto. Gero zeinek bere bidea hartu zuen, edo egiten saiatu zen, gazteak baleki zaharrak baleza, eta hurrena laurogeiko hamarkadaren hasieran tokatu ginen berriz elkarrekin, nazioarteko euskalarien kongresu handi bat izan zelako Leioan, unibertsitatean, eta zeinekin joan nintzen ez dakit, baina gaua Muxikan eman genuela bai, Joseba Lakarraren etxekoen baserrian edo hor nonbait, eta hantxe zela Iñaki ere, hura Lakarrarekin-eta ari zelako estudiantzen filologia Gasteizen, eta hantxe denok, eta jende burutsua irudit

zitzaidan, baina ez nuen askorik hitz egin Iñakirekin, azpeitiarkeria batzuk beharbada, gauza handirik ez. Eta gero berriz kitto. Eta gero hantxe azaldu zen noizbait Iñaki plazara, izenaren jabe ordurako, edo ezizenaren, ogro ordurako, euskararen mundua edo euskararen inguruan zebiltzanena mokadu batean jateko pronto, bai irentsi ere, barruan zeukan hiztegi egiten bildutako almagaren ehuneko hainbat, eta inork ez bezalako dotoreziaz jarduten zuen zurian beltz, eta dotorezia bezain handia zuen atrebimendua hitzean eta hortzean, eta ez zion *niñojexuxi* ere barkatuko, zirti-zarta ezker-eskubi batere gupida gabe, eta gehiegi ere bazen mikroaren aurrean donjuan parrokiaren pulpitutik bezala, baina askoz indar handiagoan, eta hura trumoa Iñakirena, eta gero argazkiak egitera Azkoitira joan nintzaion batean izan nintzen harekin azkenekoz, aspaldi, eta goxo Iñaki. Eta gero kitto. Eta orain min galanta eta kitto. ■

**AZKOITIRA JOAN
NINTZAION BATEAN
IZAN NINTZEN HAREKIN
AZKENEKOZ, ASPALDI,
ETA GOXO IÑAKI**

BOTEPRONTOAN



AINTZANE GARMENDIA

Gure hitzordua

Eskuko telefonoko egutegia keinuka ari zait, hainbeste hitzorduren eta ekintzen segidak haren antolaketa inoiz baino nahasiago bilakatu balu bezala. Automatikoki ageri zen kolore urdinarekin nahikoa ez, eta polikromiara lerratu naiz. Aspaldidanik ditut kolore bakoitzaren esanahiak hankaz gora: planak, azterketak, jaiegunak, urtebetetze egunak... Bai, urtebetetze egunak ere gordeak ditut, badaezpada.

Betidanik izan dut harreman estua badaezpadako kontuekin: nire buruaz gehiegi fio ez, eta ertz desberdinei begiratzeko joera dut, ikuspuntu desberdinei tarte bat eskaintzekoa. Halere, oroimenak lantzean behin egiten dizkit txantxak, eta ezin saihestu momentuko lapsus horietakoak; esaterako, dendara produktu jakin bat erostera sartu eta etxeratutakoan behar nuen hura ez beste hamaika tramankulu erosi ditudala konturatzen naizenetan.

Pentsatzen jarrita, zein hegitan ibiliko ginen aztarrenik gabe eraman ninduzuen hartan bizitakoa ere ez zait berehalakoan ahaztuko, ez. Erantzunen bila irten eta begien aurrean jarritako egia eraman lekukoa hartu beste aukerarik ez nuen izan, baina zer-nolakoa. Hitzik gabe gelditu nintzen hartan, baina gaurkoan txukun antzean eskerrak eman nahi dizkizuet E.F., badaezpada, bihotzetik egindako hitzorduen parekorik ez dago eta. ■

TiEN21 ESNAOLA

ZATOZ
DENDA BERRITUA
EZAGUTZERA!



Pablo VI, 3 · Tel.: 943-08 03 55 · esnaelek@outlook.com



IZARRAITZ

Lanbide Heziketa

Guztiona, guztiontzat!



AURREMATRIKULA

Maiatzaren 9tik 27ra

ONLINE
ikasgunea.euskadi.eus



Erdi maila:

- MENDEKOTASUN EGOERAN DAUDEN PERTSONENTZAKO ARRETA
- MEKANIZAZIO TEKNIKARIA
- INSTALAZIOA ETA ALTZARI-HORNIKUNTZA

Goi maila:

- ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK **ELIARITZA**
- MEKATRONIKA INDUSTRIALA **ELIARITZA**
- FABRIKAZIO MEKANIKOKO PRODUKZIOAREN PROGRAMAZIOA **ELIARITZA**
- GIZARTERATZEA **ELIARITZA**
- PLATAFORMA ANITZEKO APLIKAZIOEN GARAPENA **ELIARITZA**

Eskaintza partziala:

- DISEINUA ETA ALTZARI HORNIKUNTZA

Ziklo guztiak
euskara hutsean

* **ELIARITZA:** ziklo hauen moduko batak **Ingelesa** erabiliko da.

www.izarraitz.eus



CFP IZARRAITZ LANBIDE HEZIKETA LHI
Altamira auzoa z/g. 20720 Azkoitia (Gipuzkoa)
Tel. 943 85 21 74 • bulogoa@izarraitz.eus
• 688 716 482 • [izarraitz_lhi](https://www.instagram.com/izarraitz_lhi)

